#125
DOAN

2020 · 06 · 17
WWW.AIARALDEA.EUS

AIARALDEA *hemen*

Aiaraldea Ekintzen Faktoriarena



Ateak zabalik auzolanari

ADINGABEEN ZENTROA ETA BIZILAGUNAK, ELKARLANEAN

erreportajea


Zer eragin izango du bizitzeko gutxieneko diru sarrerak Aiaraldean?

Bizitzeko gutxieneko diru sarrera onartu zen iragan astean Espainiako Kongresuan. Neurri horrek Espainiako Estatuko 850.000 familiari eragingo diela kalkulatu du gobernuak, baina ikusteke dago zer nolako eragina izango duen Aiaraldean.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA
UDALERRIZ UDALERRI



Bizitzeko gutxieneko diru sarrera onartu zuen Espainiako Kongresuak iragan astean. Ia alderdi politiko guztiek bozkatu zuten alde, PP barne. VOX izan zen aurka bozkatu zuen bakanetako bat.

Espainiako Gobernuak aurreratu duenez, neurriak 850.00 familiari lagunduko die, gutxieneko 461 euroko diru-sarrera bermatuta hilero. Hala ere, jasotako diru kopurua handiagoa izan daiteke (1.050 eurokoa, gehien jota), familian dauden adingabe eta helduen arabera.

3.000 milioi euroko inbertsioa egitea aurreikusi dute neurri berria indarrean jarri ahal izateko. Baina Hego Euskal Herrian Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua arduratuko dira laguntza kudeatzeaz.

DSBEa, bere horretan

Lanbidek jakinarazi du neurri hori indarrean jartzeak ez duela eraginik izango Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta -DSBE- jasotzen duten pertsonengan. Beatriz Artolazabal Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren arabera, DSBEak Espainiako Gobernuak orain onartutako neurriak baino gehiago barnebiltzen du. Aurreikuspenen arabera, urrian hartuko luke Eusko Jaurlaritzak bere gain bizitzeko gutxieneko diru sarreraren eskumena, eta Lanbide bidez kudeatuko litzateke.

Eragina Aiaraldean

Gauzak hala, zaila da neurri horrek Aiaraldeko bizilagunen ongizatean zer nolako eragina izango duen kalkulatzea. Kontuan hartu behar da laguntza horren onuradunak izan daitezkeen pertsona

askok jada DSBEa jasotzen dutela. Aiaraldean 889 pertsonak jasotzen dute guztira laguntza hori, 375 gizonek eta 524 emakumek, Lanbideren maiatzeko datuen arabera. Amurrion 224 onuradun daude (94 gizon eta 130 emakume), Laudion 374 (146 eta 228), Aiaran 32 (16 eta 16), Artziniegan 44 (22 eta 22), Okondon 21 (6 eta 15), Urduñan 140 (62 eta 78), Orozkon 48 (23 eta 25), Arrankudiaga-Zollon 11 (4 eta 7) eta Arakaldon 5 (2 eta 3).

Hala ere, DSBEaren eta onartu berri den gutxieneko diru sarreraren irizpideak ez dira berdinak, eta horrek bai eragin ditzakeela aldaketak.

899
aiaraldearrek jasotzen dute Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta, Lanbideren maiatzeko datuen arabera



ANABEL PEREZ DE AGUADO RESA
OINARRIZKO ERRENTA UNIBERTSALAREN ALDEKO EKINTZAILEA

Oinarrizko errenta unibertsala ez da beste errenta bat

Egunero gabiltza mesfidati gobernu zentralek eta autonomikoek ondasun komunak kudeatzerako orduan duten erantzukizunagatik. Larrialdi humanitario bihurtutako munduko osasun-larrialdiarekin, gure beldurrik ilunenak baieztatu dira. Jada eskuratutako eskubideak (etxebizitza, osasuna, hezkuntza eta lana) ez dira gu babesteko gai izan. Espainiako Estatuak berandu eta eraginkortasunik gabe onartu du, ikusiko denez, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerari buruzko Errege Dekretua. Euskal Autonomia Erkidegoko diru-sarrerak bermatzeko errentaren antzekoa da, eta errenta horrek 27 urtetan erakutsi du ez dela eraginkorra Euskal Herriko biztanleen pobrezia konpontzeko.

Oinarrizko Errenta Unibertsala ezartzera ausartuko zirela espero genuen, pobrezia arintzeko gai izango zena.

Oinarrizko Errenta Unibertsala eskubide politiko bidezkoa da: indibiduala, baldintzarik gabea eta unibertsala, herritar guztien interesak, mundu osokoak zein tokikoak, gutxiengo baten interesen aurretik jartzen dituena. Aukera-berdintasunarekin parte hartzeko eta bizitza on batera pixka bat gehiago hurbiltzeko aukera bermatzen du.

Eskubide hori dagoeneko jasota dago Nazio Batuen Gutunean, 160 herrialdek sinatu dutena, eta asmo hori eskubide eraginkor eta erreal bihurtzea nahi dugu. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 25. artikuluak honako hau dio: gaurko munduak bermatu behar du munduko biztanle guztiek oinarrizko elementu guztiak eskura izatea, eta baliabide guztiak jarri behar ditu gabeziak egon ez daitezen.

Alde batera utzi behar dugu lanaren balioa eta BPGa oparotasuna lortzeko bide bakarrak direnaren usteak. Gobernuei eskatu behar diegu gure ahalegin komunaren onura eta kapitalista handiek metatu, atxiki eta ezkutatutako aberastasuna erabiltzea eskubide horri eusteko, ongizate-estatuaren bidez eskuratutako gainontzeko eskubide guztiak murriztu gabe.

Laudio, Amurrio, Aiara eta Orozkon igo da langabezia. Artziniega, Okondo eta Arrankudiaga-Zollon, aldiz, jaitsi egin da.

Igo da langabezia, baina gutxi aurreko hilabetearekin alderatuta

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Apirilean baino 47 langabe gehiago erregistratu ziren maiatzean Aiaraldean: 2784

Igotzen jarraitu du langabeziak maiatzean, baina ez aurreko hilabeteetan bezainbeste. Apirilean baino 47 langabe gehiago erregistratu ziren maiatzean Aiaraldean, 2784.

Laudio, Amurrio, Aiara eta Orozkon igo da langabezia. Artziniega, Okondo eta Arrankudiaga-Zollon, aldiz, jaitsi egin da, eta langabe kopuru bera mantendu dute Urduñak eta Arakaldok.

Emakume eta gizonen arteko aldeak bere horretan jarraitu du: udalerri guztietan dira langabe gehienak emakumeak. Artziniegan 47 gizon daude langabezian eta 60 emakume. Amurrion 385 eta 461 dira, hurrenez hurren. Aiaran 57 eta 88, Laudion 586 eta 779, Okondon 29 eta 48, Arakaldon 5 eta 6, Arrankudiagan 18 eta 25, Orozkon 27 eta 28, eta Urduñan 62 eta 73.

Antzeko joera EAEn

Eskualdeko joera Araba, Bizkaia eta Gipuzkoakoaren antzekoa da. Euskal Autonomia Erkidegoan apirilean baino 3.072 langabe gehiago erregistratu ziren maiatzean, %2,2ko igoera eraginez langabeziatasan.

Hala ere, kontuan hartu behar da maiatzeko bigarren hamabostaldian hasi direla saltoki eta taberna asko berriro martxan, eta ehunka langilek enplegua erregulatzeko espedienteetan jarraitzen dutela. Gauzak hala, ekaineko datuak berebizikoak izango dira joera zein izango den jakiteko.

Langabe kopurua udalerrika

Udalerria	Apirila	Maiatza
Laudio	1343	1365
Amurrio	830	846
Aiara	132	145
Arakaldo	11	11
Urduña	135	135
Arrankudiaga eta Zollo	47	43
Orozko	53	55
Artziniega	108	107
Okondo	78	77
Guztira	2737	2784

Iturria: Lanbide

AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA

KOOPERATIBAREN OHIKO BATZAR NAGUSIA
KOOPERATIBAKO BAZKIDEEI DEIALDIA

EGUNA: **2020ko ekainak 27, larunbata**
ORDUA: **09:30, lehenengo deialdia. 10:00, bigarren deialdia**
TOKIA: **Arrankudiagako udal-frontoia, ARRANKUDIAGA-ZOLLO (Bizkaia)**

erreportajea

Auzolana elkarbizitzaren ardatz



Ezkerrik eskumara, Urduñako Santutegian une honetan bizitzen ari diren bi herritar eta Zapalan elkarteko bi kide. **Aiaraldea.eus**

Urduñako Antiguako Santutegiko eraikinak auzolanean berritzea, etxebizitzak eta eskola-tailer bat atontzeko. Helburu horrekin sortu dute Zapalan elkartea hiriko bizilagun batzuen eta adingabeen zentroko hezitzaileen artean. Hasi dira lehen pausoak ematen.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Azken urteetan aurrerapauso nabarmenak eman dira Urduñako adingabeen zentroko gazteen eta hiriko bizilagunen arteko harremanean. Zentroko gazte batzuek hiriko hainbat espazio berregokitu zituzten iaz, auzolanean. Horietako batzuk Antiguako Santutegian bizitzen egon ziren denbora batez, alokatzeko pisu baten bila zeuden bitartean. Orain jada ez daude bertan, baina hirian bizitzen jarraitzen dute.

Auzolan-esperientzia horrek izan zuen arrakastak bultzatu ditu adingabeen zentroko hezitzaileak Urduñako zenbait bizilagunekin proiektu berri bat abian jartzera. Zapalan izeneko elkartea sortu dute horretarako eta hau da, laburbilduz, egin nahi dutena: Santutegiko eraikina berritzea, etxebizitzak eta eskola-tailerra atontzeko.

"Behar batetik jaio zen ideia. Adingabeen zentroko gazteak kanpora joaten dira 18 urte betetzen dituztenean, Bilbora gehienbat. Gauzak hala, ikusi genuen zerbait sortu behar zela kale gorrian egon ez zitezen", azaldu du Jon Fernandez hezitzaileak. Hezitzaileen artean hitz egiten hasi ziren lehenbizi, eta Urduñako bizilagunengana jo zuten gero.

Santutegia

"Antiguako Santutegiko eraikina erabiltzeko aukera sortu zitzaigun. Hutsik dago eta badu espazioa zaurgarritasun egoeran dauden pertsonei aterpea emateko", azaldu du Veronica Cid hezitzaileak, "baina espazioa eraberritu beharra dago, urte asko daramatzalako erabilia izan gabe". Orduan erabaki zuten proiektua "hartu-emanean" oinarritzea. "Alde batetik, etxebizitza beharra duten pertsona horien oinarrizko beharrizanak asetzea izango litzateke helburua. Baina, beste aldetik, eraikina berritzen joatea, Urduñako ondarearen parte delako".

Zapalan izeneko elkartea sortu dute Urduñako bizilagun batzuek eta adingabeen zentroko hezitzaileek

Hurrengo pausoak

Baina nola garatuko dute proiektua? Zeintzuk izango dira hurrengo pausoak? Aterpeko hezitzaileak bi bide aztertzen daude. "Alde batetik, instituzioetara jo dugu. Aldundiaren atea jo dugu eta Urduñako Udala ehuneko ehunean inplikatu da proiektuan, egitasmoa-

ren parte da", azaldu du Unai Urrutiak, baina nabarmendu du "jardun komunitarioa" dela bereziki sustatu nahi dutena, "Urduñako zein Aiaraldeko bizilagunekin elkarlanean". Gauzak hala, proiektuan parte hartzeko gonbita luzatu diete eskualdeko bizilagun guztiei.



Veronica Cid
Zentroko hezitzailea

"Antiguako Santutegiak badu espazioa zaurgarritasun egoeran dauden pertsonei aterpea emateko"



Unai Urrutia
Zentroko hezitzailea

"Jardun komunitarioa sustatu nahi dugu bereziki, Urduñako zein Aiaraldeko gainontzeko bizilagunekin elkarlanean. Eskualdeko herritar orok parte hartu dezake proiektuan"

Berritu nahi den eraikina Urduñako Santutegiaren patronatuaren parte dela azaldu du Sole Lezameta zinegotziak. "Bost pertsonak kontrolatzen dute patronatuaren junta: apaiza, elizak hautatutako bi pertsona eta udaleko bi zinegotzi. Pertsona horiek izango dira zein obra egin daitezkeen ebatziko dutenak. Apezpikutzarekin hitz egin dugu eta begi onez ikusi du proiektua".

Plenora eraman dute gaia, eta honako pauso hau eman behar dute orain: santutegiko juntak eraikina udalari lagatzea. "Modu horretan, tokiko erakundeak aukera izango luke espazioa 20-25 urtez kudeatzeko. Hori egiten denean hasi ahalko gara proiektua garatzen". Beste instituzio publiko batzuei ere eskatu diete laguntza, Arabako Foru Aldundiari edota Eusko Jaurlaritzari. "Lanbideri laguntza eskatu nahi diogu eskola-tailerra irekitzeko. Tailer horren bidez eraikina eraberrituko litzateke eta, aldi berean, ogibideak irakatsi ahalko lirateke".

Etxebizitzak eta eskola-tailer bat atondu nahi dituzte Antiguako Santutegian

Jende orori irekia

Eraikina "hiriaren parte" izatea nahi dute Zapalan elkarteko kideek. "Bertan egingo diren ekintzak Urduñan eragitera bideratuak egongo dira", nabarmendu du Urrutiak.

Urduñako adingabeen zentrotik ateratzen diren gazteei begira sortu dute proiektua, baina ez da euregana soilik bideratua egongo. Oraingo egoera da horren adibide. Une honetan bi pertsona daude bizitzen santutegiko azpiegituretan: Urduñako bizilagun bat eta



Erakina auzolanean eraberritzea da elkarteko kideen asmoa. **Aiaraldea.eus**

erreportajea

adingabeen zentrotik duela gutxi ateratako gazte bat.

"Askoz beharrizan gehiago daude, eta beste mota batzuetako kolektiboek ere izan dezakete tokia egitasmoan. Badaude baztertze arriskuan dauden bestelako gazteak, edota etxebizitza arazoak dituzten pertsonak", azpimarratu du Urrutiak, "uste dugu beharrizan horiek guztiak uztartu daitezkeela, parte hartze komunitarioa baliatuta".

Lezametak adibide bat jarri du: "Urduñako etxebizitza bat erreko balitz, adibidez, bertan bizi zen familiari aterpea eman ahalko litzaioke. Beste solairu bat eraberrituko balitz etxebizitza beharrak dituen sendi edo norbanako batek erabili ahalko luke. Ekimena ez da aterpeko



Jon Fernandez
Zentroko hezitzailea

"Adingabe atzerritarrei laguntzeko jaio da proiektua, baina ez da horretara mugatzen"

gazteei soilik bideratua egongo. Erabilera anitzeko espazioa izango da".

Zentzu horretan, ekimen "dinamikoa" dela nabarmendu dute Zapalan elkarteko kideek: "Baztertze arriskuan dauden adingabe atzerritarrei laguntzeko jaio da proiektua, baina gehiago zabaldu daiteke. Integrazioa komunean eman behar da, guztiak bide beretik joanda".

Aurrera begira

Hala ere, ez dute proiektua Antiguako Santutegiko eraikinera mugatu nahi. "Elikaduraren eta nekazaritzaren esparruan ere jardun nahiko genuke", aurreratu du Cidek. Fernandezek eman ditu xehetasun gehiago: "Proiektuak hainbat



Sole Lezameta
Urduñako Udaleko zinegotzia

"Erakina udalari lagatzea izango da lehen pausoa, proiektua garatzen hasteko"

adar ditu, oraindik zehaztu behar direnak. Eskola tailerra da horietako bat, baina ez bakarra. Badakigu Urduñan nekazari eta abeltzain ugari daudela, lan egiteko jendea behar dutenak. Alor hori ere jorratzea interesgarria iruditzen zaigu".

Hala ere, giroa "nahiko geldirik" dagoela uste dute. "Ez dugu instituzioen aldetik mugimendu asko ikusten. Izan daiteke egoera ekonomikoagatik, edota instituzio batzuek proiektuan sinesten ez dutelako. Baina guk bai sinesten dugula egitasmoan, eta Urduñako zein Aiaraldeko bizilagunei zabaldu nahi diegu. Gauzak hala, proiektura batzeko gonbita luzatu nahi diegu eskualdeko norbanako, elkarte, eragile zein enpresei".







Une honetan bi pertsona daude Antiguako Santutegian bizitzen: Urduñako bizilagun bat eta adingabeen zentrotik duela gutxi atera den gazte bat. **Aiaraldea.eus**

Berriz ZUREKIN

Irekita daude dagoeneko eskualdeko saltoki eta taberna gehienak. Hiru hilabeteko konfinamendua kolpe latza izan da tokiko merkatarientzat, gehienek ateak itxi egin behar izan baitituzte denborra horretan. Gauzak hala, tokiko kontsumoa sustatzeko kanpainak jarri dituzte abian udalek eta merkataritza elkarteek.

Konfinamendua igarota, ohiko zerbitzuak eskaintzeko prest daude tokiko merkatariak

Koronabirusaren krisia kolpe latza izan da eskualdeko merkatarientzat. Eskualdeko 5.363 langileri aplikatu zaizkie Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedienteak Aiaraldean, martxoaren 5etik maiatzaren 20ra bitartean, eta espediente gehienak ostalaritzan aplikatu dira. 87 espediente ezarri dira tabernetan, 40 jatetxe edo janari postuetan, 54 txikizkako salmentan jarduten duten saltokietan eta 29, aldiz, ile-apaindegietan.

Ostalaritzan aplikatu dira Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espediente gehienak. 87 espediente ezarri dira tabernetan, eta 40 jatetxe edo janari postuetan

Azken asteetan apurka apurka ireki dira eskualdeko establezimenduak eta une honetan esan daiteke ia guztiak daudela zabalik, hainbat mugapenekin bada ere. Gauzak hala, tokiko saltoki eta tabernetan kontsumitzea inoiz baino garrantzitsuagoa dela nabarmendu dute hainbat eragile eta instituzio publikok.

Udalen ekimenak

Gauzak hala, tokiko merkataritza sustatu eta laguntzeko kanpaina ugari abiatu dira azken asteetan eskualdean. Artziniegako Udalak, adibidez, ikerketa bat egin zuen herrian, eta ondorio esanguratsu bat plazaratu zuen: artziniegarrek herritik kanpo gastatzen dutela eurosketetara bideratutako diruaren %49.

Horregatik, tokiko kontsumoa bultzatzeko kanpaina abiatu du tokiko erakundeak.

Laudio, Okondo, Urduña eta Amurrioko udalek, aldiz, saltokiak "berriz irekitzeko" bonoak jarri dituzte abian, bakoitza bere aldetik eta udalerrietako merkataritza elkarteekin elkarlanean. Herritarrek bonoak eskuratzea da egitasmoaren xedea, modu horretan dirua herriko saltokietan gastatuko dutela bermatzeko. Orozkon ere antzeko kanpaina jarri zuten abian, eta jaietako dirua ere bideratuko dute sektorea berpiztera, 25.000 euro guztira.

Aiaran ere diru-laguntza berriak jarri dituzte abian enpresa txikiei eta autonomoei laguntzeko. 40.000 euro bideratuko dituzte guztira zeregin horretara.



Establezimendu gehienak irekita daude dagoeneko. **Aiaraldea.eus**

komunika
KOMUNIKAZIO INTEGRALA
diseinu grafikoa
aldizkariak kartelak
flyerrak logotipoak
triptikoak egutegiak
bisita txartelak
gida komertzialak
jai egitarauak
Nerbioi kalea, 12 Laudio 946 568 554
www.komunika.eus info@komunika.eus

bitz zentroa
PROFESIONAL EUSKALDUNAK ZURE ZERBITZURA
LOGOPEDIA / PEDAGOGIA
FISIOTERAPIA PEDIATRIKOA
OSASUN OROKORREKO PSIKOLOGIA
SEXOLOGIA KLINIKOA
Arreta goiztiarra (0-6 urte)
Karmen kalea 39, 01400 LAUDIO
Tel.: 94 672 63 91 / 656 74 27 22
hitz.zentroa@gmail.com

TOLO
Girorik onena, segurtasun-neurri guztiekin
Ekarri zure maskara, guk gainerakoa jarriko dugu
Aldai enparantza, Laudio
672 23 50 65 www.tolobar.com

herriz herri

Aiaraldea

23 hildako utzi ditu COVID-19aren pandemiak

Testua
Aitor Aspuru Saez



Osakidetzako anbulantzia Laudion, pandemian. **Aiaraldea.eus**

Osakidetzak jakinarazi duenez, pandemia hasi zenetik ekainaren 8ra bitartean -hau da, krisialdiaren unerik gogorrenetan- 23 aiaraldear hil dira COVID-19aren ondorioz.

Zehazki, 9 herritar zendu dira Laudion, 8 Amurrion, 3 Orozkon eta bana Okondon, Artziniegan eta Aiaran. Arrankudiaga-Zollon, Arakaldon eta Urduñan ez da heriotzarik jazo koronabirusa dela medio.

Gaixo kopurua eta hildako herritarrak aintzat hartuta, Okondon izan da emaitza bortitzena, kutsatuen %14,4 zendu baita. Orozkon heriotza eragina %12,5ekoa izan da, Artziniegan %9,1ekoa, Amurrion %7koa, Laudion %5,8koa eta Aiaran %1,6koa. Guztira, birusak kutsatutakoen %5,5 hil dira. Urduñan, Arrankudiaga-Zollon eta Arakaldon ez da inor hil osasun sistemaren arabera, COVID-19aren ondorioz. Berez, hiru udalerri horietatik bakarrik Urduñan topatu dituzte kasuak; hori bai, 42 izan ziren.

Izan ere, eskualdean 418 koronabirus kasu detektatu ditu Osakidetzak: Laudion 156, Amurrion 114, Aiaran 64, Urduñan 42, Orozkon 24, Artziniegan 11 eta Okondon 7. Arrankudiaga-Zollon eta Arakaldon ez dute positiborik frogatu. Erakundeak 100.000 biztanleko tasa erabili du koronabirusaren zabalpena herrika neurtzeko.

Horrela, Aiara izan da udalerririk kaltetuena, 2.206,1 tasarekin. Hurrengo herria Amurrio izan da (1.094,2), eta gero datoz Urduña (982,7), Orozko (918,5), Laudio (850,4), Okondo (581,4) eta Artziniega (572,3).

Ohiko funtzionamendua berrezarri du Aiarako Kuadrillak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Prentsa-oharra plazaratu du Aiarako Kuadrillak, alarmaegoerak iraun duen hilabeteetan nola jardun duen azaltzeko.

Encina Castresana presidentearen esku egon dira Kuadrillaren eskumen guztiak maiatzaren 12tik gaur arte. Hala erabaki zuen gobernu batzordeak, "bilerak egitea ezinekoa zelako Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetzak ezarritako prebentzio-neurriekin".

Era berean, Kuadrillako langileei "tresna profesionalak" erraztu dizkietela nabarmendu dute erakundeko ordezkariek, "euren lana normaltasunez egin ahal izan dezaten, telelanean".

Eskualdeko Enplegu Planean (PECO) kontratatutako langileei, aldiz, behin behinean eten diete euren jarduna, "prebentzio neurri gisa"; baina jada lanean daude berriz, oharrean argitu dutenez.

Horrez gain, zabor kudeaketan hainbat pauso eman dituzte, adierazi dutenez. Edukiontzien garbiketa zazpi astez indartu dute, "langile bat gehiagoren eta bigarren kamioi hidro-garbitzaile baten laguntzarekin". Horrez gain, hondakinen bilketaren maiztasuna areagotu dute zenbait puntutan, zabor gehiago sortu delako itxialdian. Koronabirusaren aurkako prebentzio neurrien barruan kokatu dituzte neurri horiek eta, ildo berean, norbera babesteko ekipamenduak eman dizkiete hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzuan aritutako beharginei.

Beste jarduera batzuk, aldiz, bertan behera geratu dira, aurrez aurre egin behar zirelako. Adinekoen Eskualdeko Topaketa da horietako bat. Hala ere, Kuadrillak ziurtatu du gehienak formatu birtualera egokitu direla, eta gainerakoak beharrezko segurtasun eta osasun baldintzak betetzen direnean egingo direla.

Horrez gain, Kuadrillak Arabako Foru Aldundiarekin elkarlanean dihardu hainbat proiektutan: Ayudasarabacovid19.eus atariaren eguneraketan eta ekonomia suspertzeko egitasmoetan, besteak beste.

Turismoaren alorrean, aldiz, "diru-laguntzen, protokoloen eta hainbat araudiren berri" eman diete eskualdeko enpresei.

Ohiko funtzionamendua

Kuadrillako presidenteak jakinarazi du eskumenak gobernu batzordera itzuli direla dagoeneko eta,modu horretan, informazio-batzordeak, gobernu-batzarrak eta osoko bilkurak deitzeari ekingo diotela berriz, "osasun agintarien jarraibideak betez betiere".

Bi langile kaleratu ditu Tubacexek astebete baino gutxiagoan



Mobilizazioak egingo dituztela iragarri dute. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Bi langile kaleratu ditu Tubacex enpresak astebete baino gutxiagoan. Bi kasuak oso antzekoak izan dira: zuzendaritzak ikerlariek hartutako irudiak baliatu ditu beharginak kaleratzeko. Antzeko argudioak erabili zituen zuzendaritzak otsailean beste behargin bat 60 egunez zigortzeko. Kasu hori eta berriki kaleratu duten beharginetako batena epaitegietara eraman dituzte.

3 epaiketaren zain

Hain zuzen, sindikatuekin akordioa lortzea gomendatu zion epaile batek aurreko kasu batean Tubacexi. Langile erakundeek epaitegira jo zuten enpresak langileari 10 eguneko oporrak kendu nahi zizkiolako, espedienteen harira.

Horren aurrean, epaileak exijitu zion zuzendaritzari adostasuna bilatzea beharginekin. Hori gertatuko ez balitz, ekainaren 17an izango litzateke epaiketa. Mobilizazioak egingo dituztela jakinarazi zuten sindikatuek, baina oraindik ez dituzte zehaztu.

LABen aldarrikapenak

LAB sindikatuak oharra zabaldu du kaleratutako bi langileak berriro onartzea eta kontratatzea eskatzeko. Erakundeak azaldu du Tubacexeko zuzendaritzak ikerlari pribatu baten txostena baliatu duela beharginaren medikuak esandakoa ukatzeko.

Zehazki, adierazi duLABek: "Honek langileen eta euren familien intimitateari eraso egiten dio, eta auzitan jartzen du bajan dagoen langileak egin dezakeen edozein jarduera, aipatutako jarduera medikuak berak aholkatua egon arren".

"Ez da kasualitatea"

Sindikatuak erantsi du ez dela kasualitatea Tubacexek langile horren aurka egitea eta nabarmendu du behargina aurretik seinalatuta zegoela enpresan: "Duela urte batzuk langile honek behartuta ikusi zuen bere burua barne-salaketa bat aurkeztera, arduradun batzuen aldetik jasotako tratuaren ondorioz. Ordutik aurrera, bere egoera ez da batere erraztu enpresa barruan. Pasa den otsailean, zigortu ere egin zuten bere arduradunek, 12 egunez enplegu eta soldatarik gabe, arau-hausteengatik, hiru ohartarazpen jarraian egin ondoren. Enpresak berak, pasa den martxoan, langileari eskatu zion aholkularitza baten bidez egiten ari ziren elkarrizketa batzuetan parte hartzeko, gertatzen ari zena ezagutu eta konpontzeko".

Saratxo

Saihesbidearen obretarako aurreikusitakoa baino lur gehiago desjabetzen ari direla salatu dute



Iaz esleitu eta abiatu ziren Saratxoko saihesbidea eraikitzeko obrak. **Saratxoko Administrazio Batzarra**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Saratxoko saihesbidea eraikitzeko lanak nahiko aurreratuta daude dagoeneko, baina ez dira aurreikusi bezala garatzen ari, Saratxo Bizirik-ek eta herriko administrazio batzarrak salatu dutenez. Ohar bateratua plazaratu dute plataformak eta erakundeak, obretan ematen ari diren hainbat gorabehera jakinarazteko. "Beti esan izan dugu Saratxoko errepidearen eraikuntza handikeria hutsa zela, eta egun, hori egiaztatzeko obrak ikustea besterik ez dago", nabarmendu dute.

Desjabetze berriak

"Desjabetze berriak" egiten ari direla salatu dute, besteak beste. "Bai, harrigarria den arren herritar guztiei kendu diguten guztia kenduta (etxea dela, ortua, lursaila, negozioen etorkizuna kolokan jartzea...), orain zenbait lekutan ez zaie aurreikusitako obra perfektua sartzen, eta jabeei lur gehiago kenduko diete, aspaldi jarritako mugarrietatik barrurago sartzen dira".

Arrakalak etxeetan

Gainera, obra hainbat puntutan aldi berean hasi dutela nabarmendu dute oharrean, eta horrek uraren bideraketa okertzea eragin duela. "Adibidez, Venta de los Aires deritzon eremuan ura etxe batzuetaraino eramatea izango da lortuko dutena". Era berean, plataformak eta administrazio batzarrak nabarmendu dute obraren arduradunek aurreikusi baino sakonago topatu dutela arroka ama zenbait lekutan, eta horrek lurra eusteko hormigoizko pilote asko sartzera derrigortu dituela. "Teknika horren ondorioz bibrazioak eta arrakalak sortu ziren alboko etxeetan, eta bizilagunek beldur eta tentsio izugarriarekin bizi izan dituzte une horiek".

Bukatzeko, Saratxoko bizilagunek nabarmendu dute "nekatuta" daudela "azalpen perfektuak entzun eta ostean errealitatean gaizki kalkulatutako ekintzen ondorioak pairatzeaz". Era berean, nabarmendu dute "arabar guztiak" egon beharko liratekeela obra horregatik kezkatuta. "AHTaren, Supersurraren eta Bolintxun egiten ari diren neurrigabeko obren aurka agertu diren askok beste alde batera begiratu dute obra hau salatu beharrean. Akaso alboko probintzian honek suposatzen zien errentagarritasun politikoa zela eta". Horrez gain, obra hau askoz modu jasangarriago eta merkeagoan egin zitekeela nabarmendu dute: "Suposatzen dugu ziurrenik pairatuko dugun krisi ekonomikoa ikusirik, Arabako agintari batek baino gehiagok galdetuko diola bere buruari ez ote genien era duinagoan aurre egingo sortuko diren aurrekontu arazoei, baldin eta obra jasangarriagoa eta askoz merkeagoa egin izan bagenu.

Datorren urterako amaituta

Iaz hasi ziren Saratxoko saihesbidea eraikitzeko obrak. 2019ko otsailean esleitu zituen Arabako Foru Aldundiak, 19,1 milioi euroren truke. 32 hilabeteko epea eman zien Nuño y Pescador, Balgorza eta Aglomerados Los Serranos enpresei proiektua amaitzeko. Hau da, aurreikuspenak betetzen badira, datorren urterako egongo litzateke amaituta.

Aiara

Uztailaren 3an irekiko dira Aiarako igerilekuak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Uztailaren 3tik irailaren 6ra egongo dira irekita Aiarako Udal Igerilekuak. COVID-19a dela eta, harpidedun-txartela duten erabiltzaileak soilik sartu ahalko dira azpiegituretara. Hau da, ez da bertan sarrerarik eskuratzeko aukerarik egongo. Horrez gain, udalak aurreratu du "ezohiko segurtasun neurriak" jarriko dituztela, eta aforoa "uneoro" kontrolatuko dutela.

Ordutegia

Igerilekuak egunero egongo dira erabilgarri. Astelehenetik ostiralera 12:00etatik 21:00etara egongo dira zabalik. Asteburu eta jai egunetan, aldiz, ordubete lehenago irekiko dira.

Nola egin harpidedun

Udalerrian erroldatuak dauden herritarrek badute dagoeneko harpidetza egin edo moldatzeko aukera, ekainaren 26ra arte. Erroldatuak ez daudenek, ordea, hilaren 26tik 30era bitarteko tartean egin beharko dituzte tramite guztiak,web@aiarakoudala.eus helbidera mezu bat bidalita. Tokiko erakundearen webgunean (www.aiarakoudala.eus) topatu daiteke informazio guztia.

Orozko

"Gorbeia Mariren eskutik Orozkon" aplikazioa sortu dute udalerria hobeto ezagutzeko

Testua
Aitor Aspuru Saez

"Gorbeia Mariren eskutik Orozkon" aplikazioa sortu dute udalerriko hainbat toki eta informazio ezagutzeko. Egitasmoak aukera eman du ordu eta erdiko ibilaldia egiteko Orozkon bertan eta hainbat bitxikeriaren berri ematen du.

Horrez gain, interaktiboa da eta argazkiak eta jokoak egin beharko dituzte erabiltzaileek, besteak beste.

Sakelakoan deskargatu eta gero, interesdunek Orozkoko Turismo Bulegora jo beharko dute QR kodea aktibatzeko. Horren bidez, GPSak talde parte-hartzailea kokatuko du eta argazkia egin ondoren, toki jakinetara joatea proposatuko die.

Probak, informazioa eta jokoak eskaintzeaz gain, iradokizunak ere egiten ditu gailuak. Adibidez, toki egokiak proposatzen ditu txakolina hartzeko.



Ibilaldi bat proposatzen du aplikazioak.

COVID-19aren pandemiak turismoaren esparruan izandako eragina leuntzeko asmatu dute "Gorbeia Mariren eskutik Orozkon".

herriz herri

Urduña

Behin-behineko aparkalekua egokitu dute autokarabanentzat

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Autokarabanak aparkatzeko behin-behineko espazio bat egokituko du Urduñako Udaleko Hirigintza Sailak Nafarroako aparkalekuan. 12 plaza izango ditu guneak guztira, eta ekainaren amaierarako prest egongo dela aurreikusi dute. Edateko ura kargatu eta ur grisak hustеko aukera izango dute erabiltzaileek zezen-plazan, aparkalekutik 500 metrora.

Autokarabanen sektore turistikoa erakartzea da udalak proiektu honekin duen asmoa.



Autokarabanen aparkalekua egokituko dute. **Urduñako Udala**

Laudio

Jaietako kartel lehiaketa antolatu du udalak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Aurtengo San Roke jaiak ofizialki bertan behera geratu diren arren, jaietako kartel lehiaketa antolatu du Laudioko Udalak. Tokiko erakundeak jakinarazi du "jai-ekitaldi txikiak" egingo direla abuztuan, eta horregatik mantendu dute lehiaketa, "Laudioko jaietako sugarra bizirik mantentzeko".

Udalerrian erroldatutako herritar orok parte hartu ahalko du norgehiagokan. Parte hartzaile bakoitzak nahibeste lan aurkeztu ahal izango ditu, ekainaren 21era arte. Bi kategoria egongo dira: 6 eta 14 urte bitarteko haur eta nerabeena, eta nagusiena. Lehiaketak bi fase izango ditu. Lehenengo fasean epaimahai teknikoak izango du hitza, hurrengo fasera igaroko diren lanak hautatuko baititu. Bigarren fasean, aldiz, herritarrek aukera izango dute parte hartzeko. Helduen kategorian 1.000 euroko bonoa emango diote irabazleari. Haurrenean, aldiz, 200 eurotan baloratutakomaterial didaktiko sorta izango da saria.

Lehiaketaren informazio guztia eta oinarriak Laudio.eus webgunean topatu daitezke.

Artziniega

Kutxabankek astero bi egunetan irekiko du bulegoa



Udalbatza aretoan sakabanatu ziren ordezkari politikoak, segurtasun neurriak betetzeko. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor spuru Saez

Artziniegako ekaineko udalbatzak gai garrantzitsuen onarpena ekarri zuen, ez-ohiko irudiarekin batera: udal aretoan ordezkari politikoen arteko distantziak errespetatu zituzten, hainbat aulki kokatuta eta sakabanatuta. Horrez gain, publikoan 5 lagun besterik ez zituzten onartu, eta maskara janztea eta eskuak garbitzea beharrezkoa izan zen.

Saioaren hasieran Aintzane Iturribarria EH Bilduko zinegotzi berriak kargua hartu zuen ofizialki, eta ASASAM elkartearen hitzarmenari bide eman zioten.

Gainera, udalerriko autonomoak diruz laguntzeko programa babestu zuten alderdi politiko guztiek, COVID-19 birusaren pandemiak eragindako kalte ekonomikoak ahalik eta gehien mugatzeko. Oposizioak aipatu zuen herriko negozioren bat geratu dela deialditik kanpo, eta alkateak azaldu zuen oso zaila zela arau bakarrean kasu oro jasotzea eta ahal izan duten guztia egin dutela.

Igerilekuetako lanak

Arazo burokratiko baten ondorioz, igerilekuen lanen 2. ziurtagiria eskuratu behar izan du udalak, eta hori baliatu zuen EAJk azpiegituraren irekierari buruz galdetzeko.Pandemiaren ondorioz obrak atzeratu dira, besteak beste, atzerritik ekarri behar zuten pieza bat ezin zelako eskuratu. Gauzak horrela, uztailaren 15ean bukatuko ditu enpresak lanak. Hori bai, gero dena funtzionamenduan jarri beharko dute, eta segurtasun plana zehaztu, erakundeen irizpideak beteta.

Alkateak argitu zuen euren asmoa irekitzea dela, "baina ezin dugu ziurtatu momentuz. Arauak egunez egun aldatzen dira, eta gaur balio duenak, agian bihar ez. Segurtasuna izango da elementurik garrantzitsuena eta hori bete beharko dugu". Gainerako puntuak bezala, ur hornidurari lotutakoak aho batez onartu ziren. Alde batetik, fibrozementuko hodiak ordezkatzeko kontratazio baldintzek oniritzia jaso zuten.

Bestetik, Gordelizen ur hornidura konektatzeko desjabetzek aurrera egin zuten, baita Barratxiko zubian lanak egiteko 1. faseak ere.

Udal Gobernu Taldearen jarduera kontrolatzeko txandan oposizioak hainbat galdera egin zuen. Besteak beste, aurten Jolas Txokoen ordez zerbait egingo ote den galdetu zuten. Joseba Vivanco gobernuburuaren hitzetan, administrazioek baimenduta, zenbait txango egingo dituzte uztailean. Horretarako boluntarioak baliatuko dituzte: "Herriko zenbait jendek jakinarazi digu ekintzak prestatzeko aukera dutela". Edonola ere, balizko ekintzak 9 urtetiko gorako umeei bideratuko dituzte.

Liburutegia zein nagusien eguneko zentroa hurrengo astean egongo dira berriro irekirik. Hori bai, erabiltzaileen kopurua erdira murriztuta eta behin segurtasun elementuak instalatuta.

Arteko tabernaren esleipenari buruz ere galdetu zuen EAJk. Joseba Vivancok erantzun zuen inork ez duela eskaintzarik egin. Izan ere, koronabirusaren ondorioz, interes gehien adierazi zuen pertsonak atzera egin du. "Gazte batzuek galdetu zuten horri buruz, baina, azkenean, dena geratu da bertan behera". Alkateak argitu zuen herriko ostalariei ere eskaini zaiela tabernaren kudeaketa, baina inork ez duela bere gain hartu nahi izan. Saiakera gehiago egingo ditu udalak, antza.

Kutxabank

Erregu eta galderen txandan bertaratutako herritar batek informazioa eskatu zuen Kutxabankeko bulegoari buruz, itxita baitago eta kutxazain automatikoak ez du funtzionatu hainbat egunez.

Alkateak argitu zuen, berez, ekainaren 10etik Artziniegako bulegoa Amurriokoaren menpe dagoela. Hala, soilik bi egunez irekiko dute astero: asteartetan eta ostiraletan.

Hala ere, udalari jakinarazi diotenez, ekainaren erdialdean berriro irekiko dute bulegoa. Bide batez, alkateak argitu zuen banketxeak segurtasun arazoak izan dituela kutxazain automatikoarekin, eta erabiltzaileak entitatearekin harremanetan jarri behar direla, gehienetan udaletxera jotzen baitute, "eta Kutxabank erakunde pribatua da".

herriz herri

Okondo

Bonoak sortu dituzte tokiko kontsumoa sustatzeko

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

"Okondo bizia bonoak" aurkeztu ditu Okondoko Udalak. Ostalaritza eta zerbitzuak laguntzea izango da egitasmoaren helburua. Horretarako, 5€ eta 10€ balio dituzten txartelak sortu dituzte. Alabaina, herritarrak 4€ eta 8€ ordainduta eskuratu ahalko ditu, eta aldea tokiko erakundeak hartuko du bere gain.

Oharrean zehaztu dutenez, "bonoak tamaina bereko erosketan erabili ahalko dira bakarrik, edo gastua ekarpena baino handiagoa denean". Dinamikak hiru hilabete iraungo du; horrenbestez, tarte horretan baliatu ahalko dira bakarrik "deskontuak".

Horrez gain, pertsona bakoitzak 3 txartel soilik eskuratu ahalko ditu. "Eroslearen datuak hartuko dira", zehaztu dute.

6 gune aukeran

Sei izango dira "Okondo bizia bonoa" egitasmoan parte hartuko duten negozioak: Batzoki, Zigor eta Txaparro tabernak, Iratxo ile-apaindegia, Gorostiola eta Okendo Hipika Kluba.

Igerilekuak ez dira irekiko aurten

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Udan igerilekuak itxita geratuko direla jakinarazi du Okondoko Udalak. Tokiko erakundeak nabarmendu du "oso erabaki zaila" izan dela. "Aldeko eta aurkako" argudio guztiak aztertu ditu tokiko erakundeak, eta azpiegiturak irekitzea egokia ez dela ondorioztatu du, "nahiz eta igerileku instalazioak ireki eta mantentzeko irizpideetan agertzen diren gomendio guztiak bete".

Herritarrak babestea du udalak helburu. "Igerilekuak eremu publikoak direnez, erabiltzaile asko biltzen dira; beraz, kutsatzeko eta birusa hedatzeko leku izan daitezke". Udalak azaldu du zaila izango litzatekeela distantziak mantentzea, edukieraren muga kontrolatzea eta guneen desinfekzio eta garbiketa eskakizunak betetzea".

Horrez gain, udalak nabarmendu du Okondoko biztanleriaren %23 edadetua dela. Horregatik, osasun agintarien gomendioak zorrotz jarraitzea eskatu diete bizilagunei eta baita datozen asteetan herrira gerturatu daitezkeen bisitariei. "Azpimarratu nahi dugu asko kostatu zaigula igerilekuak ixteko erabaki 'mingarri' hau hartzea eta baliteke askok gogoko ez izatea, baina gauza guztien gainetik jarri ditugu zuhurtzia eta gure herritarren osasuna".



Ume bat Okondoko igerilekuetan jolasten, artxibo irudi batean.

Arrankudiaga eta Zollo

Aisialdiko jardueretarako begiraleen lan poltsa osatzen ari dira udarako

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Aisialdiko jardueretarako begiraleen lan poltsa sortzeko deialdia plazaratu du Arrankudiaga eta Zolloko Udalak. Tokiko erakundeko kideek azaldu dutenez, umeentzako ekintzak antolatzeko asmoa dute udan, "baldin eta, gaur egun, COVID-19ak sortutako pandemia egoera dela eta, osasun agintariek baimena ematen badute".

Ekainaren 30etik aurrera

Lanaldia ekainaren 30etik uztailaren 17ra luzatuko da. "Egunean lau ordu, astelehenetik ostiralera". Lan-poltsa arautzeko plazaratutako dekretuan adierazi dutenez, aurkezteko hainbat baldintza bete beharko dira: 18 eta 30 urte bitarteko adina izatea, euskalduna izatea eta langabezian egotea, besteak beste. Udalerrian erroldatutako begiraleek lehentasuna izango dute, eta ikasketa zein tituluak ere puntuatuko dira.



elkarrizketa

“15 egunekoa izango da aurtengo Euskaraldia, asteburuak barne”



GOIATZ URKIJO CASTAÑARES (Laudio, 1994) ARABAKO EUSKARALDIKO KOORDINATZAILEA DA. BI ASTERA LUZATU DUTE EGITASMOA, ETA “GEHIAGO, GEHIAGOREKIN ETA GEHIAGOTAN” IZANGO DA LEMA.



Testua eta argazkia
Izar Mendiguren Cosgaya

Euskaraldiak bigarren edizioa izango du aurten. Zeintzuk izango dira helburuak?

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra izango da Euskaraldiaren 2.edizioa, “Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan” lelopean. Euskara ulertzen dutenen arteko ahozko hizkuntza ohiturak aldatzea da helburua. Beste era batera esanda: herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea. Euskaraldian parte hartzeko bi baldintza bete behar dira: euskara ulertzea eta 16 urtetik gorakoa izatea.

Ariguneak izango dira ardatzetako bat. Zer dira?

Euskaraldiko 2. edizioak ariketa taldeka egiteko gonbita luzatzen du, norbanakoez gain. Talde horiek Ariguneak izango dira. Modu errazean ulertzeko, euskaraz lasai aritzeko guneak izango dira. Euskaraz hitz egiteko aukera bermatuko dute uneoro; bai entitate barruan eta baita eragileek herritarrekiko duten harremanetan ere. Talde hauetako kideek Ahobizi eta Belarriprest moduan jardungo dute Euskaraldiko 15 egunetan, eta ariketa modu kolektiboan gauzatuko dute, Ariguneen bidez.

Bi Arigune mota egongo dira. Zeintzuk?

Barne eta kanpo Ariguneak. Barne Ariguneak izango dira entitate baten baitan ohiko dinamika duten taldeak. Bi baldintza bete behar dira horretarako: kideen %100 euskaraz ulertzeko gai izatea, eta bestetik, bertako partaideen %80 ados egotea Euskaraldian modu kolektiboan parte hartu nahi izatearekin. Adibidetara ekarrita, barne Ariguneak izan daitezke Guraso Elkarteak, kirol edo kultur taldeak, enpresetako talde zehatzak eta abar.

Kanpo Ariguneak, ordea, herritarrekin harreman espazioetan dauden lagunek osatuko dituzte. Horretarako, uneoro Ahobizi edo Belarriprest bat dagoela bermatuko dute entitateek. Hau da, herritarrek euskaraz artatuak izateko aukera izango dute beti kanpo Ariguneei esker. Honelako espazioak asko izan daitezke: supermerkatuetako kutxak, tabernari zein dendariak, arreta publikoa duten guneak...

Ahobiziek zein funtzio izango dute?

Ahobizi eta Belarriprestok izango gara ariketaren oinarria. Herritarrek bi rol horietan hartuko dute parte, eta horrez gain, hala erabakitzen dugunok talde horietan parte hartzeko aukera izango dugu.

elkarrizketa



“Bi Arigune mota egongo dira Euskaraldian: barnekoak eta kanpokoak”

Ahobiziek euskaraz ulertzen duten denekin hitz egingo dute euskaraz. Beste pertsonaren hizkuntza ez dakitenean ere euskaraz esango dituzte lehen hitzak; eta ulertzekotan, euskarari eutsiko diote. Batzuetan zaila izan arren, elkarrizketa elebidunei ere euskaraz eutsiko diete.

Eta Belarriprestek?

Euren gaitasunaren arabera erabakiko dute noiz eta norekin aritu euskaraz Belarriprestek. Beti ez dute euskaraz hitz egingo ulertzen duten guztiekin, baina beraiekin euskaraz egiteko eskatuko diete modu esplizituan gainontzeko Ahobizi eta Belarriprestei.

Taldeak aipatu dituzu. Enpresa edo bestelako entitateetan izango al du tokia Euskaraldiak?

Norbanakoez gain mota guztietako entitateak izango ditugu lagun euskaraldiaren bigarren edizioan. Erakunde publikoez gain, gizarte eragileek ere izango dute tokia: kooperatibek, kultur eta kirol elkarteek...

Iraupena izango da aurtengo beste berrikuntza bat.

Euskaraldiaren oinarrietako bat da progresibitatea. Lehen edizioan 11 egunez aritu ginen Ahobizi eta Belarriprest gisa. Oraingoan 15 egunekoa izango da, asteburuak barne.

Nolakoa izan da iazko Euskaraldiaren balorazioa?

Positiboa. Iaz 225.000 pertsonak hartu zuten parte ariketan, eta Euskal herrian 400 batzorde inguru aktibatu ziren. Balorazioari dagokionez, hiru geruza bereizi ditugu.

Barrura begira, nabarmena izan zen Euskal Herri osoan euskararen lurraldea irudikatu zela. Euskaltzaleak aspaldiko partez saretu ziren herri askotan. Aurpegi berriak batu ziren antolaketara, eta antolaketa modu berriak sortu ziren Euskaraldiari esker. Eragileen arteko elkarlana oso beharrezkoa izan zen, baina oso garrantzitsua izan da guretzat bestelako entitateek ere interesa agertzea Euskaraldian.

Partaideei dagokienez, euskarari buruzko gogoeta egin zuten herritarrek. Horietako askok, hizkuntza ohituren inguran gogoeta egin eta aldatzeari ekin diete.

Gizarteari dagokionez, zilegitasun soziala eman zigun Euskaraldian parte hartzeak; subjektu aktibo bihurtu eta lehen planoan jarri ginen. Oso polita izan zen txapak sortutako konplizitatea. Bestalde, ulermen unibertsalaren beharra mahaigaineratu zen.

Laburbilduz, Euskaraldiaren bueltan sortutako talde giroaren ondorioz, euskarazko joera aktiborako grina piztu da Ahobizi eta Belarripresten artean. Ikuspegi horretatik azpimarratzekoa da Belarriprestek beste Belarripresetekin aritzeko euskara erabiltzeko hautua egin zutela. Dirudienez, Ahobizi eta Belarriprest rolak geratzeko etorri dira. Portaera hauek ibilbide luzea dute aurretik oraindik.

Aiaraldean nola antolatuko duzue ekimena?

10 batzorde sortu dira Aiaraldean. Alabaina, iaz ez bezala, batzorde horien arteko koordinazioa sortu da Euskaraldia gure ingurura etortzeko.

Udari begira, baduzue ekintzarik aurreikusita?

Uda berezia izango da aurtengoa. Egia da iaz uda garaia udazkeneko ariketa gizarteratzeko erabili genuela; batez ere herriko jaietan. Aurten ez dakigu zer gertatuko den, beraz, oraingoz ez dago ekintza zehatzik aurreikusita. Hala ere, saiatuko gara sortu daitezkeen jardueretan Euskaraldiari keinu bat egiten.

Udazkenean zehar, zer nolako dinamikak eskainiko dituzue?

Udazkenean, batez ere, Ahobizi eta Belarripresten izenemateetan murgilduko gara. Irailean irekiko da herritarrentzat apuntatzeko aukera. Garai hau erabiliko dugu pedagogia lanak egiteko. Azaroaren 20tik abenduaren 4ra ariketa kolektiboa egingo dugu Euskal Herri osoan.

Iaz izena eman zutenek, aurten berriro apuntatu beharko dute?

Bai. Askok aurreko rola aukeratuko dute, baina beste zenbaitek agian birritan pentsatu (edo prestakuntza saioetan parte hartu) eta aurreko edizioko rola aldatzea erabaki dezakete. Orduan, berriro eman beharko dugu denok izena.

Euskaraldiaren nondik norakoak jarraitzeko, zein espazio digital eratu dituzue?

Euskaraldia.eus webgunean topatuko dituzue informazio eta eduki guztiak. Momentu honetan, entitateak ari dira Euskaraldian izena ematen (irailaren 27an amaituko da haien epea).

Sare sozialetan ere aurkituko gaituzue: Twitterren, Facebooken, Instagramen, Telegramen, Mastedomen eta Youtuben.

Horrez gain, Laudioko eta Orozkoko Batzordeek sare sozial propioak dituzte. Aurrez aurre bezala, batzorde eta norbanakoekin birtualki ere komunitatea sortzen saiatzen gabiltza. Eta, batzordeen kasuan, elkarlana eremu birtualera ekarri dugu.


“Ahobizi eta Belarriprest rolak geratzeko etorri dira. Portaera hauek ibilbide luzea dute aurretik oraindik”

“10 batzorde sortu dira Aiaraldean”

Koronabirusak baldintzatuko al du egitasmoa?

Ez-ohiko egoera bizitzea egokitu zaigu aurten, baina Euskaraldia egin egingo dugu. Horretarako, Aiaraldear guztiak animatu nahi ditut tokiko batzordeetan parte hartu eta denon artean euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egitera!

ZUGANDIK HURBIL





LAUDIOKO UDALA

ANDER AÑIBARRO

COVID-19aren osasun-krisia dela eta, Laudioko Udalak lan handia egin du azken asteotan herritarren eskaerei eta beharrei modu eraginkorrean erantzuteko. Gizartea eta ekonomia bultzatzeko neurri-sorta bat diseinatu da, 700.000 euro inguruko inbertsioarekin. Tokiko establezimenduetan erosketa eta kontsumoa sustatzeko bonoak biltzen dituen funtsa. Lanean jarraituko dugu, orain arte bezala, inor atzean ez uzteko. Laudio bidean dago! Animo eta aurrera!

LAUDIO UDALA AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herritarren arretarako ordutegia (HAZ) 09:00etatik 14:00etara da, aurrez aurre edo 010 / 944 034 800 telefonoaren bidez. Mezu elektroniko bat ere bidal daiteke info@laudio.eus helbidera.



ARTZINIEGAKO UDALA

JOSEBA VIVANCO

Desosegu hilabete hauetako gauzarik onena, inoiz esan dudanez, Artziniegak hazten jarraitzen duela izan da. Sei jaiotza berri, konfinamendu eta alarma garai honetan. Itxaropen tantak, hainbeste ziurgabetasunen artean. Horregatik nago ziur Artziniegarentzat onena etortzear dagoela, bidean oraindik harri asko izango ditugun arren. Egoera honetatik auzolanean ateratzen ari gara eta auzolanean aurrera jarraituko dugu. Erronka ez da erraza, baina bai ilusionagarria. Denon artean lortuko dugu. Aupa zuek!

Artziniegako Udala

Udal azpiegiturak zabaltzen ari dira apurka apurka. Udaletxea zabalik dago 9:00etatik 14:00etara. Telefonoa: 945 39 63 53



AIARAKO UDALA

GENTZA ALAMILLO

Hilabete zailak izan dira, eta tokiko administrazio publikoek gure burua berrasmatu behar izan dugu, auzokideek eskatzen duten zerbitzu eta arreta hurbil eta eraginkorra eskaintzen jarraitu ahal izateko. Oraintsu, Aiarako norbanako, familia, autonomo, enpresa txiki eta mikroenpresentzako premiazko laguntza-deialdi bat argitaratu dugu, 40.000 eurokoa, COVID-19aren bilakaerak eragindako ondorio ekonomikoak arintzeko. Orain inoiz baino gehiago, egoera honetatik elkarrekin aterako gara. Aurrera Aiara!

Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala

HAZa 9:00etatik 14:00etara dago irekita. Luiaondoko bulegoan astelehenetan 9:00etatik 12:00etara eta asteazkenetan 12:00etatik 15:00etara artatzen da. Kontsultak 945399013 telefonoan eta info@aiarakoudala.eus helbidean.

URDUÑAKO UDALA

URDUÑA ORDUÑA

Udaletxeko telefonoa (945 38 30 03) erabilgarri dago eta tramiteak egin daitezke Zaharra kaleko 2 eta 4 zenbakietan dauden bulegoetan, 9:00etatik 13:00etara.

OKONDOKO UDALA

Okondoko Udalak ere hainbat ekimen jarri ditu abian koronabirusaren krisiari aurre egiteko, tokiko merkataritza sustatzeko, besteak beste. Udaletxea zabalik dago goizero. Telefonoa: 945 89 80 23



ARRANKUDIAGA ETA ZOLLOKO UDALA

TXUTXI ARIZNABARRETA

Udaberrian COVIK-19ak baldintzatu ditu gure bizitzak, egoera berria eta gogorra dela eta. Eskerrik asko auzotar guztioi izan duzuen portaera zuhur eta arduratsuagatik. Badator uda eta, astiro astiro, gure egunerokoa normaltze bidean elkarlanean pausoak ematen ari gara. Denon artean lortuko dugu!

ARRANKUDIAGA ZOLLO UDALA
AYUNTAMIENTO ARRANKUDIAGA ZOLLO

Udalean egin beharreko tramiteak errazago eta azkarrago egin daitezke 946481712 tefefonoan, udala.arrankudiaga@bizkaia.org helbidea erabiliz eta www.arrankudiaga.org webgunearen "tramiteak" atalaren bitartez.

ARAKALDOKO UDALA

Udaletxea irekita dago tramiteak egiteko, astelehenetik ostiralera 8:00etatik 15:00etara.



OROZKOKO UDALA

PEDRO MARI INTXAURRAGA

Zaila egiten zaigu pandemia honen ondorioak ulertzea eta aurreikustea, eragin digun ziurgabetasuna dela eta. Osasun-larrialdiaren aurrean zer egin oso ondo jakin gabe, larrialdi sanitario, sozial eta ekonomiko batean gaude. Konponbidea bilatzeko, ezinbestean, gizartearen ahalik eta batasun handiena behar dugu, eta egungo bizimodura eraman gaituzten balioak berrikusi eta birformulatu behar ditugu. Umiltasunez jokatu behar dugu eta geratzen zaigun lanaz kontziente izan.

orozko

94 633 96 33 telefonoaren edo administrazioa.orozko@bizkaia.org helbide elektronikoaren bidez egin daitezke tramiteak. Udaletxea 08:00etatik 15:00etara dago zabalik.



AMURRIOKO UDALA

JOSUNE IRABIEN

Amurrio ez da koronabirusak sortu duen mundu mailako krisialditik kanpo geratu eta, orain, egoera zailari aurre egiteko erronka dugu. "Amurrion bizi" kanpaina martxan jarri dugu, 555.275 euroko partida gaitu da COVID-19ak sortutako ondorioak arintzeko. Babes soziala eta amurrioarren ongizatea bermatzea, eta udalerriaren suspertze ekonomikora bideraturako ekintzak antolatzea dago gure helburuen artean. Denon artean lortuko dugu!

AMURRIO
UDALA
AYUNTAMIENTO

Herritarren Arretarako Zerbitzua irekita dago astelehenetik ostiralera 7:45etik 15:00etara. Uztaila eta abuztuan, aldiz, 9:00etatik 14:00etara eskainiko da aurrez aurreko arreta. 945 891 161 telefonora deituta edo haz-sac@amurrio.eus helbidera mezua bidalita egin daitezke kontsultak.



ITZIAR BIGURI

Osasun krisialdi honek kalte handiak eragin ditu hirian, baina guztiok batera aurrera egin dezakegu. Ziur nago. Urduña komunitate solidario eta kolaboratzailea da; hala erakutsi duzue garai zail hau jasan behar izan arren. Udaletik lanean jarraituko dugu, oztopo guztiak gainditzen lagunduko diguten neurriak martxan jartzeko.

argazki erreportajea

Ekitaldia egin zuen igandean Aresketa Ikastolak Amurrioko Guk parkean. Aurtengo Araba Euskarazen abestia eta bideoklipa aurkeztu dituzte gonbidatuz beteriko ospakizunean. Igandean egin nahi zuten jaia, baina koronabirusaren ondorioz urrira atzeratu eta formatua aldatu behar izan diote egitasmoari.

“Ekainaren 14ko ospakizuna urriaren 18ra Darabagu”



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Iragan igandean egitekoa zen aurtengo Araba Euskaraz jaia, Amurrion, baina COVID-19a dela eta atzeratu behar izan dute ekimena, urrira. Alabaina, ekitaldia egin zuen Aresketa Ikastolak igandean Guk parkean. Ikastolaren ibilbideari zein erronka berriei erreparatu zieten, besteak beste. "Ekainaren 14ko ospakizuna urriaren 18ra Darabagu", adierazi zuten.


Segurtasun eta osasun irizpideak bermatzeko, aforo mugatua izan zuen deialdiak. Hargatik, Youtubeko kanalean zuzeneko emisioa egin zuten. Besteak beste, Porrotxek, Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteko lehendakariak eta abestiarein sortzaileek hartu zuten hitza.

Ikus-entzunezkoz eta istorioz osatutako emanaldia izan zen igandekoa. Eneko Alday ikuskizun lantaldeko kidearen hitzetan, "ospatzea" izan da helburua. Amurrioko kirolariak, dantzariak eta musikariak izan zituzten bidelagun; kolaborazio ugariko ekitaldia izan zen.

Horrez gain, Ikastolako komunitateak ere izan zuen protagonismoa. Hala, guraso zein hastapenetako belaunaldiek, Sabin Guaresti abestiko kolaboratzaile eta ikasle ohiak eta beste zenbait lagunek hartu zuten parte. Modu horretan, hainbat ikuspegi eta ekarpenetatik heldu diote Aresketa ikastetxeak eskuartean duen erronkari.

Urriaren 18an,jaia

Urriaren 18an izango dute hurrengo zita nagusia, egun horretan izango baita Araba Euskaraz jaia. Bien bitartean, ekimenekin jarraitzeko asmoa dute, "Bazen behin Darabagun..." dinamikarekin bezala. Informazio guztia Araba Euskarazeko webgunean eta sare sozialetan zabalduko dute.











argazki erreportajea









GONBIDATUAK

Gonbidatu ugarik hartu zuten parte ekitaldian, Porrotx eta Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteko lehendakariak, besteak beste. Igon Olaguenaga, Sabin Guaresti eta Aiala Mendietak ere hitz egin zuten, abestiaren sorrera prozesuari buruz. Andere Morillo eta Ainhize Solaunek, aldiz, kantaren koreografia dantzatu zuten.

ZUZENEAN

Ekitaldia zuzenean emititu zen Araba Euskarazen Youtubeko kanalean. Aiaraldea. eus atarian ikusi daiteke bideo osoa. Bideoklipa ere ikusi daiteke bertan.
Argazkiak: Aresketa Ikastola eta Naiara Barallobre





kultura

“Zuzendariek haiek ikusi nahiko luketen telesaila grabatu zuten, eta jende askori gustatu zaio”

LEO ALVESek (Brasil, 1996) URTE UGARI DARAMATZA LAUDION BIZITZEN. *VORÁGINE* ZIENTZIA FIKZIOZKO WEBSERIE BIZKAITARREAN PARTE HARTU DU, ARGAZKI ZUZENDARI GISA. BI MUNDU PARALELOREN ARTEKO TALKA KONTATZEN DU IKUS-ENTZUNEZKOAK.



Testua **Julen Solaun Martinez**



Zer da *Vorágine*?

Zientzia fikziozko webserie bat da, non bi mundu paraleloren arteko talka kontatzen den. Hortaz, bi dimentsioen artean komunikatu ahal dira; seriea hasten denerako bost urte igaro dira jada bi munduen arteko komunikazioa hasi zenetik. Hiru emakume protagonistak, orduan, bi munduen arteko zerbait egiten hasten dira.

Nola sortu zen webseriean parte hartzeko aukera?

Zuzendarietako batekin kamera ikastaro bat egin nuen, eta esan zigun proiektu batean ari zela. Baina xehetasun batzuk besterik ez zizkigun eman, ez genekien oso ondo zertaz hitz egiten ari zen.

Ikastarorako film laburra egin behar izan genuen elkarrekin, eta nik uste orduan konturatu zela gurekin lan egin ahalko zuela. Ondoren, ekoizle bat, beste argazki zuzendari bat eta ni deitu gintuen.

Nolakoa izan da zientzia fikziozko saioa grabatzea?

Izan dugun aurrekontua oso murritza izan da. Beraz, ezin genuen serie oso futurista egin, mundu hori sortzeko behar adina dirurik ez genuelako.

Gainera, pertsonaiei emandako tratamenduak ere badu zerikusia. Guk pertsonaia errealak egin nahi genituen, gutxiengo sozialen parte zirenak. Beraz, gure helburua ez zen izan zientzia fikziozko zatian soilik zentratzea. Pertsonaia bakoitzaren bizitzak mundu horretan zer eragiten duen aztertu nahi genuen.

Istorioaren sorreran parte hartu duzu, beraz?

Izaskun Camarero, Laura Reguera (ikastaroko eta *Vorágine* ekoizpeneko bi kide) eta ni lehenengoetarikoak izan ginen istorio honen ideia jakiten. Hortaz Vicky Rojas eta Dalila Cabrera zuzendariak gidoia idazten ari ziren bitartean guk bagenekizkien hainbat gauza.

Idazten ari ziren bitartean, hainbat gauza galdetu zizkiguten, baina haiek idatzi zuten osorik. Dena den, ekoizpena baino askoz ere lehenago hasi ginen proiektuan lanean, denbora luze igaro genuen aurre-ekoizpen fasean.

Bilbon dago girotua. Non grabatu zenuten?

Ez genuen Bilbon bakarrik grabatu, Eibarren ere aritu ginen. Etxeetako zatiak grabatu genituen herri horretan. Bilbon, Deustuko liburutegiaren alboan grabatu genuen, besteak beste.

Aste Nagusiko egun batean ere grabatu genuen. Lehenengo kapituluaren momentu batean, protagonistetako bat kaletik ari da ibiltzen eta su artifizialak ikusten ditu. Hori jaietako egun bat izan zen.

Zenbat denbora egon zineten grabatzen?

Lehenengo kapitulua grabatzeko bi aste inguru eman genituen, berrogei minutu zirelako eta gauza asko grabatu behar genituelako. Kapitulu hori pertsonaien sarrerarako erabili dugu, batez ere. Dena den, denboraldi honetako beste atalak hogei minutukoak izango dira.

Zenbat atal dira guztira?

Lehenengo denboraldiak hamabi izango ditu.

Beraz, denboraldi bat baino gehiago egiteko asmoa duzuela ulertzen dut.

Hori da asmoa, bai. Azken finean, babesleen bila ari gara. Dirurik ez badugu, askoz ere zailagoa da. Jende asko mugitu behar da tokiz grabaketa egiteko. Patreon eta Ko-fi plataformak ere erabiltzen ditugu publikoaren dohaintzak jaso ahal izateko. Dena den, enpresen eta ekoizleen kolaborazioa bilatzen ari gara.

Zer harrera izan du lehenengo kapituluak?

> “Izan dugun aurrekontua oso murritza izan da, beraz, ezin genuen serie oso futurista egin, mundu hori sortzeko behar adina dirurik ez genuelako”

Nire ustez, harrera ona izan du. Jendeari asko gustatu zaio. Zuzendariek haiek ikusi nahiko luketen telesaila grabatu zuten.

Deskripzioan adierazten da webserie LGTBI bat dela. Nola erabaki zuten zuzendariek ikuspuntu hori ematea?

Egia esan, gutxiengo sozialetako pertsonek osaturiko seriea da, baina ez zen aldez aurretik planeatutako zerbait izan, prozesu naturala izan zen. Jendea parte hartzeko izena ematen joan zen eta era naturalean gertatu zen. Zuzendariek haiekin gehien konektatzen zuten pertsonak aukeratu zituzten, aldez aurretiko esperientzia ez zuten gehiegi baloratu. *Vorágine* ekoitzi duten pertsonen % 80 emakumeak izan dira. Hiru protagonistak emakumeak dira, adibidez.

***Vorágine*-ren hurrengo denboraldiez gain, ba al duzu beste proiekturik etorkizunari begira?**

Ez, beharko nuke, baina oraindik ez dut ezer.

babestutako edukia

Hiru belaunaldi igaro dira Yandiola hortz klinika zabaldu zenetik. Juan Maria Yandiolak eman zituen lehen pausoak 1945. urtean, Guda Zibilean borrokatzeagatik heriotzera kondenatuta egon ostean. Bere seme Juan Antoniok hartu zuen lekukoa 1970. hamarkadan, eta mende berriaren hasieran sartu zen Juan Mari iloba lanera, gaur egun arte.

Yandiola hortz klinika: 75 urte, hiru belaunaldi, proiektu bera

75 urte bete ditu Yandiola hortz klinikak. Ibilbide luze bezain gorabeheratsua egin du, familia bereko hiru belaunalditan zehar.

Juan Maria Yandiolak eman zituen lehen pausoak 1945. urtean, kartzelatik atera ostean. Guda Zibila hasi baino lehen Valladoliden zegoen medikuntza ikasten gazte bilbotarra. Bertan, Jose Antonio Giron de Velascoren lagun egin zen, boxeoarekiko zaletasuna konpartitzen baitzuten biek.

Giron de Velasco Francoren ministro bilakatuko zen urte batzuk beranduago, eta bera izan zen Yandiolari etxera itzultzeko esan ziona, altxamendu frankista gertatu baino bi egun lehenago. Ikasle Euskaldunen Elkarteko presidentea zen Yandiola, eta altxamenduak Valladoliden harrapatu izan balu arriskuan egongo zen seguru asko.

Heriotzara kondenatua

Arrankudiagara itzuli ostean Padura bataloian eman zuen izena gazteak, eta kapitaina izatera iritsi zen. Santoñako Hitzarmenaren ostean epaitu eta heriotza zigorra ezarri zioten, baina zigorra ordezkatu zioten gero, eta sei urteren buruan atera zen kalera. Bere ematzeak, Estefania Uribe-echebarriak, aldiz, lau urte igaro zituen Frantzian, erbestean.

Kartzelan eman zituen urteak latzak izan ziren, baina espetxeko klinikan languntzeko aukera izan zuen Yandiolak. Askatasuna berreskuratu zuenean Madrilera jo zuen odontologian espezializatzera, eta Aiaraldera itzuli zen gero.

Laudioko jaietan artatu zuen Yandiolak bere lehen pazientea. Bera eta Uribe-echebarria etxeko balkoian zeuden, ez zutelako zezenketak ikustera joateko dirurik. Halako batean, pertsona bat ikusi zuten Markesaren iturriaren alboko zubitik ibiltzen, eskua masailean zuela. Pertsona horrengana jo zuten eta hagina kendu zioten, eta zezenketetara joateko aukera eman zien horrek.

Aitzindaria Aiaraldean

Garai hartan Laudion ez zegoen horrenbeste lanik. Gauzak hala, Orozkon beste kontsulta bat jarri zuen Yandiolak. Aitzindaria izan zen: 1950ko hamarkadan bera zen Urduñatik Basaurira arteko zatian zegoen hanginlari bakarra, eta lan-kopurua nabarmen handitzea ekarri zuen horrek.

Bigarren belaunaldia

1976ra arte lanean aritu zen Yandiola etengabe. Urte horretan zendu zen, eta bere semeak, Juan Antoniok, hartu zuen bere lekukoa, klinikako bigarren belaunaldiari bide emanez. Zerbitzu militarra egiten 14 hilabete eman ostean ekin zion lanari, eta berehala egin zuen lehen aldaketa nabarmena, 1979. urtean: Carmen kaleko 13. zenbakira mugitu zuen kontsulta, espazio zabalagoa izateko. Orduz geroztik hori izan da klinika entzutetsuaren kokalekua.

Hirugarren belaunaldia

Juan Mari Yandiolak 2002. urtean amaitu zuen karrera, eta 2004. urtean ekin zion klinikan lan egiteari, bere aitonak eta aitak aurreko bi belaunaldietan jorratutako bideari jarraitzeko asmoz.



Juan Antonio eta Juan Mari aita-semeak klinikan, aitonaren erretratuarekin. **Yandiola sendia**

Urte hauetan guztietan odontologia "erabat" aldatu dela nabarmendu du Yandiolak: "Lehen haginak kendu eta protesiak jartzera mugatzen zen gure jarduna. Orain dena dago digitalizatua, teknologia zeharo aldatu da. Jendearen kontzientzia ere aldatu da zeharo, eta azken hogei urteetan gorakada egon da inplanteen eskaeran".

Eskerrak pazienteei

Urte hauetan guztietan eurengan konfiatu duten herritarrei eskerrak eman nahi izan dizkiete Yandiola sendiko kideek. "Klinikako paziente zaharrenak hiruron eskuetatik igaro dira: aitonarekin hasi ziren eta hona etortzen jarraitzen dute".



Juan Maria Yandiola, kartzelako klinikan. **Yandiola sendia**

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO
75 urte zurekin
Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00

kultura

HISTORIAREN ISTORIOAK

Pandemiak Aiaraldean



AKETZA MERINO
Historialaria

Pandemiak ez dira ezezagunak izan gure historian zehar. Ospetsuena XIV. mendeko izurrite beltza da, baina ez dakigu zein eragin izan zuen Euskal Herrian. Izurriteak mundua goitik behera aldatu zuen, denbora gutxian Europako biztanleriaren herena eraman zuelako. Zer gertatuko litzateke koronabirusaren ondorioz hirutik bat desagertuko balitz? Ezin imajina genezake.

Hala ere, 1918ko gripea izan zen pandemiarik hilgarriena, mundu osora ailegatu zen eta. Hemen ere gure arbasoek gripe ezezagun hau pairatu zuten, nahiz eta oraindik ere ikertu gabe dagoen zenbat pertsona akabatu zituen. Gripe honen ostean, nahiko garai lasaia bizi izan dugu osasunaren aldetik eta pandemia baten biktimak izateko beldurra ez dugu inoiz ezagutu, orain arte.

Baina izurrite beltza eta 1918ko gripearen artean beste izurrite eta gaixotasunak egon ziren tarteka. Hona hemen adibide bat. 1596an izurrite atlantikoa deitu zena Kantauri itsasotik sartu zen, Gaztelan sarraski handia egiteko. Orduan, Aiarako agintariek Santander, Castro, Portugalete eta beste itsasportuetara joatea eta kostaldetik etorritako bidaiariak jasotzea debekatu zuten. Garai hartako alarma egoera izan zen hura.

Gaixotasunen aldetik ere oso mende gogorra izan zen XIX. mendea gure inguruan. Mende honetan zehar kolera lau aldiz agertu zen Iberiar penintsulan baina baztangak ere oso eragin handia izan zuen. Izurritez izurrite, gizarteak gaixotasunen hedapenari aurre nola egin ikasi zuen, eta Lezama herrian emandako hiru erantzun mota aztertuko ditugu.

Lehenengo kasua 1885ean gertatu zen. Koleraren berri izan zuten herrian eta alkateak eta apaizak Jaungoikoaren laguntza eta babesa eskatzea erabaki zuten. Seguraski oso ohikoa izan zen hori, bere eraginkortasuna zalantzan egon arren.... Dena den, mezak, prozesioak eta errogatibak antolatu zituzten. Horrela, herriko liburuetan agertzen denez, San Prudentzioko baselizara egiten ziren prozesioan santu honen irudia hartzeko eta elizara eramateko. Han bederatzi egun egongo zen irudia eta egunero, goizeko 6etan, parrokia inguruan errogatiba bat egin zen irudia eramanez, meza batekin bukatzeko. Bederatzi egunak pasa ostean, imajina baselizara bueltatuko zuten.

1888an baztanga agertu zen herrian, abisatu gabe. Beraz, hildakoak hilerrira nola eramango zituzten izan zen kontzejuak hartutako erabaki bakarra. Lezama lau kuadrillatan bereizten zen eta kuadrilla bakoitzean bi gizon hautatu zituzten zozketa bidez. Norbait baztangaren ondorioz hiltzen bazen, bere kuadrillako bi gizonak bere etxera joan behar ziren gorpua hartzeko, baina etxekoei tokatzen zitzaien gorpua kaxan sartzea eta zerraldoa ixtea. Horrela, bi gizonek bakarrik etxetik hilerrira eramango zuten, han lurperatzeko. Han bukatzen zen haien betebeharra, txanda beste auzokoei pasatzen zitzaien eta.

Bukatzeko, nahiko ohikoa izan zen izurrite edo kolerak eragindako hildakoak leku berezi batean lurperatzea, hilerria ez kutsatzeko. 1892an kolera areagotu zenean Lezaman, herriko medikuak hilerri berri bat egitea eskatu zion kontzejuari, hilerri zaharra baldintza txarretan zegoelakoan. Kontzejuak ezin izan zuen hain epe laburrean hilerri berri bat egin eta, horregatik, kolerarengatik hildakoak Santa Marina baselizan lurperatzea erabaki zuen, lehenagotik egina zuten bezala.



Izate Faltsuaren disko berria, labetik ateratzeko zorian

Testua
Julen Solaun Martinez

Izate Faltsua taldeak bere hirugarren lana aurkeztu berri du. *Amorru bizia* izendatu dute diskoa, eta 8 kantu ditu. "Hilabete amaieran aterako da. Urte eta erdi behar izan dugu konposatzeko, gutxi gorabehera", azaldu du Sagu taldekideak. Aurreko lanekin alderatuta, metalaren hainbat adar jorratu dituzte, "xehetasunak pixka bat gehiago finkatuz".

Burubioko Sustraiak Records estudioan egin dute grabaketa, Egoitz Palaciosekin. Pandemiagatik, ordea, proiektua eten behar izan zuten. Hala, hilabete eta erdiren ostean, maiatzean, berrekin zioten nahasketa eta masterizazioari Gasteizko Silverstar Studiosen. Iker Bengoa teknikariaren laguntza izan dute horretarako.

"Metal estiloko 8 abesti dituen diskoa da. Gaia aurrekoetan bezalakoa da, gaurkotasunari buruzko gure ikuspuntua, eta gauzen bilakaeraren kritika", zehaztu dute.

Gor disketxeak banatuko du lana, eta disko-dendetan egongo da eskura. Hala ere, Spotify, Itunes, Amazon edo Bandcamp plataformetan ere entzun ahalko da. Aurkezpen birari buruz galdetuta, kontzertuak oraindik "airean" dituzte: "Instituzioetatik, bizi dugun egoeran ez da kultura ezer lagundu. Beraz, diskoa mugitzean zentratuko gara eta egoera onean jotzeko aukera dagoenean aurkezpen bira prestatuko dugu".

Diskoak hainbat kolaborazio ditu: "Childrain taldeko Iñi Bengoak eta Eraso! taldeko Ruizek parte hartzen dute bi abestitan". Azala, berriz, Ruben Gonzalez abeslariak egin du.



TXANI RODRIGUEZ
IDAZLEA

Gero gerokoak

Edozein gauza galtzeak gauza hori maitatzen genuen heinean minduko gaitu. Bereziki axola ez bazaigu, berdin zaigu galera. Hori da kulturarekin ere gertatzen dena: oso egoera larrian dago sektorea, baina kulturak ez dirudi garrantzitsuegia geure gizarte honetan. Krisialdi hau baino lehen, une latzetan zegoen kultura. Askotan, jaso dugun mezua hauxe izan da: kultura ez da ezinbestekoa. Baina kultura gu guztiok gara, bizitza bera da, kultura. Imajina ezazue bizitza zinema, musika, dantza, antzerkia, liburu, bideo-joko barik. Antzerkiak, liburudendak, zinema-aretoak tenplu zibilak dira, eta beharrezkoak .

Kulturarekiko dugun kontzeptu eskasa ez da berria, prekarietateak –hau oso tristea da- bokazioaren magalean indarra hartzen du. Geure munduan, oso ohikoa da lanak balio duena baino askoz gutxiago kobratzea ala, are tristeagoa, ez kobratzea. Egun, liburu edo pelikularen bat ordaindu barik deskargatzeak ez du dilema etikorik planteatzen sikiera. 2018tik hona, artistaren estatutuaren gaia mahai gainean dago hurrengo helburuarekin: artistek eta kultura-arloko profesionalek bidezko lan- eta bizi-baldintzak dauzkatela ziurtatzea, baita gainerako langileen eskubide (eta betebehar) berberak ere. Frantzian, dagoeneko, badago horrelako zer edo zer, baina badakigu zer gertatzen den ezinbestekoak diren gauzekin: gero gerokoak.

Abian dago berriz Burubio, eskualdeko kulturaren alde lan egiteko prest

Testua
Txabi Alvarado Bañares



Hainbat segurtasun neurri ezarri dituzte elkarteko kideek. **Burubio K.E.**

Burubio Kultur Elkarteak ateak ireki ditu berriz, azken hiru hilabeteetan bere jarduna erabat gelditu ostean. Alarma egoera piztu zenean elkarteko kideek bertan behera utzi behar izan zituzten programatuak zituzten ekintzak, 4. urteurrenaren ospakizuna barne. “Gehien larritzen gaituena eskaintza kulturala gelditu behar izatea da. Badirudi gizarte honetan kultura oso leku urrunean kokatzen dutela instituzioek”, salatu du Egoitz Palaciosek, “turistak etor daitezke edo kotxe berri bat erosi dezakezu, baina sektore kulturala erabat ahaztuta dago deskonfinamendu prozesuan”.

Burubioko kideak gaineratu du entsegu lokalak ia 3 hilabete egon direla hutsik, ezin zirelako ireki.

Ixteko zorian

“Denbora tarte honetan jabearekin behintzat akordio batera heldu gara, baina beste gastu batzuek aurrera jarraitu dute”. Horrez gain, udalarekin komunikatzea “nahiko zaila” suertatu zaiela gehitu du Palaciosek, “diru laguntzak kobratzeko zain gaude oraindik, eta ixtea behin baino gehiagotan baloratu dugu serioski”. Hala ere, “kulturaren alde lan egiten” jarraituko dutela ziurtatu dute, “nahiz eta oso zaila eta neketsua izan kapitalean eta kontsumo artifizialean oinarritutako sistema honen kontra egitea”.

Entsegu lokalak martxan daude dagoeneko. “Konfinamenduarekin pare bat lokal hutsik geratu ziren, eta orain apurka apurka bagoaz normaltasunera bueltatzen”, azaldu du Palaciosek. Lokal bat libre dute oraindik, baina laster betetzea espero dute. “Poztasun handia da musikari eta sortzaileak berriro bertatik ikustea”.

Grabaketa estudioa ere abian dago berriz, eta baita areto nagusiko jarduna ere. “Baditugu dagoeneko erreserba batzuk, bideoklipak grabatu edo entsegu orokorrak egiteko”. Beraz, alde horretatik “pozik” daude Burubioko kideak.

Aurrera begira

Egoera ikusita, bi helburu nagusi zehaztu dituzte Burubioko kideek datozen hilabeteetarako: lokalak betetzea eta publikorik gabeko jardueratan “buru-belarri” sartzea. “Kulturgune bezala hazi nahi dugu, eta baditugu zenbait bide jorratzeko hemendik aurrera”, aurreratu du Palaciosek, eta egiten duten lan guztia “modu boluntarioan” garatzen dutela nabarmendu du.

Eskaintza kulturalari dagokionez, momentuz ez dute ezer eskaintzeko asmorik. “Sektore kulturalaren egoera ikusita, ez zaigu batere etikoa iruditzen eskaintza kultural bat egitea”. Salatu dutenez, hainbat langile eta kultur eragile guztiz geldirik daude, “lanik gabe, diru laguntzarik gabe eta, are larriagoa dena, etorkizunari begirako neurri konkreturik gabe, ezjakintasun izugarriarekin”.

Irekita daude berriz Artziniegako museoak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Ostiralean ireki zituen ateak berriz Artziniega Museoak, lehen aldiz koronabirusaren krisia hasi zenetik. Asteko sei egunetan egongo da erakusketa gunea bisitatzeko parada. Asteartetik larunbatera 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era egongo da zabalik. Igandean, aldiz, goizez soilik egongo da irekita. Hala ere, bisitak egiteko hitzordua eskatzea gomendatu dute museoko arduradunek, 945 396 210 telefonora deituta.

Santxotena museoa ere

Santxotena museoak, aldiz, iragan astean ireki zituen ateak, ekainaren 6an. "Martxoaren 7tik aurrera egon da museoa itxita, baina ia hiru hilabete hauetan zehar museo bizia izaten jarraitu dugu, artea kalera aterata", azaldu du Teresa Lafragua museoko kudeatzaileak. Xabier Santxotenak eskulturaren zuzeneko bideoak eskaini ditu itxialdiko egun guztietan, bere lanak azaltzeko. Umeei bideratutako tailerra ere gauzatu dute. "Santxotenak zirriborro bat egin du, haurrek euren eskultura propioa garatu zezaten hortik abiatuta".

kultura

Laudioko Deabruak, udari su emateko prest



San Joan Astobitzako baselizaren alboko zelaietan dabiltza taldeko kideak egunotan, ikuskizuna prestatu eta grabatzen. **Aitor Aspuru Saez**

San Joan Astobitzako jaietan egin nahi dute Laudioko Deabruak su-antzerki taldeko kideek euren lehen ekitaldi publikoa: *Sutan murgilduta* ikuskizuna. Baina koronabirusaren krisiak ekimena birpentsatzera bultzatu ditu.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

COVID-19aren krisia dela eta, aurten ezingo dira udako solstizioa ospatzeko egin ohi diren jarduerak antolatu. Gauzak hala, euren aurkezpena birmoldatu behar izan dute Laudioko Deabruak taldeko kideek. Urtarrilean hitz egin zuten San Joan Astobitzako jai batzordearekin, eta jaietan ikuskizun bat egitea proposatu zieten, "taldea ezagutzera emateko". Baina festa bertan behera geratu denez, beste ekimen bat egingo dute taldeko kideek euren burua aurkezteko.

Ikuskizun baten bideoa sareratuko dute euren sare sozialetan ekainaren 23an (asteartea), gaueko hamarretan. *Sutan murgilduta* izango da emanaldiaren izena, eta egunotan grabatzen ari dira, San Joan Astobitzako baselizaren alboko zelaian.

Aurreratu dutenez, jaietarako pentsatua zeukaten ikuskizun bera izango da, baina "formatu txikian" plazaratuta, "minutu gutxiko bideo batean laburbilduta". Lehen ekitaldia orain egingo duten arren, hilabete ugari igaro dira Laudioko Deabruak taldea sortu zenetik. Herriko gazte batzuen artean jarri dute abian egitasmoa. "Txikitatik asko gustatu izan zaigu antzerkia, eta baita correfoc-ekin edota piroteknia-rekin zerikusia daukaten gauzak", azaldu dute.

Gauzak hala, "su-antzerki talde" gisa definitu dute euren burua. Nabarmendu dutenez, eurena kontatuta, mota horretako lau talde baino ez daude Euskal Herrian. Hala ere, nabarmendu dute euren jarduna antzerkiari lotuagoa egongo dela suari baino. "Ikuskizunak antolatu nahi ditugu, kalejirak alaitzeko eta umeekin ondo pasatzeko".

Taldearen lehen ikuskizuna laburbiltzen duen bideoa sareratuko dute ekainaren 23an, gaueko hamarretan

Ikuskizun gehiago

Etorkizunera begira ikuskizun gehiago antolatzeko asmoa dute Laudioko Deabruek. Aurreratu dutenez, eskualdean zein eskualdetik kanpo aritu nahi dute, koronabirusak uzten dien heinean betiere.

kultura

Bertan behera geratu dira udako solstizioa ospatzeko egingo ziren ekintza gehienak, COVID-19aren ondorioz. Debeku zehatzik ez dagoen arren, bertan behera geratu dira suarekin erlazionatutako ekintza gehienak. Orozkon San Juan azoka mantendu dute, eta beste herrietan bestelako ekintza batzuk antolatu nahi dituzte.

Sugarrik gabe hasiko da uda Aiaraldeko herrietan



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Oso aspaldikoa da udako solstizioa ospatzeko sua pizteko tradizioa. Urtero errepikatzen da ohitura, eskualdeko herri guztietan. Aurten, baina, sugar gutxirekin egingo zaio ongietorria udari Aiaraldean, herri gehienetako ospakizunak bertan behera geratu baitira koronabirusaren ondorioz

San Joan Astobitzako jaiak izan ziren bertan behera geratzen lehenak, apirilean. “Ez dugu ezagutzen ekainean izango dugun egoera, baina azken unean urteroko egitaraua antolatzea ezinezkoa zaigu, jai batzorde txikia eta xumea garen heinean”, adierazi zuten orduan jai batzordeko kideek, eta honakoa eskatu zioten udalari: urtero jasotzen duten diru-laguntza “COVID-19ak herritarrongan sortu dituen zailtasunei aurre egiteko erabiltzea”.

Gainontzeko herrietan ere antzekoa da egoera. Orozkon, adibidez, bertan behera geratu dira San Joanetarako aurreikusitako ekintzak. Hori bai, azoka mantendu dute, “ekoizleen eta bertara joaten diren herritarren osasuna bermatzeko prebentzio neurri guztiak hartuta”. Datorren igandean -ekainak 21- izango da zita, 10:00etatik 14:30etara.

Urduñan, aldiz, aurreikusitako ekintza guztiak suspenditu dituzte. Abere azoka eta Zilarrezko Perretxikoaren banaketa urtebete atzeratu dituzte, sektorearekin hala adostuta. Olaran elkarteko Jon Solaunen hitzetan, zaila da ezarritako segurtasun neurriak betetzea,saltoki batetik bestera sei metro egotea eta bakoitzean gehienez 1-2 pertsona egotea eskatzen baitu araudiak, besteak beste. Horregatik hartu dute bertan behera uzteko erabakia.

Arrankudiaga-Zollon ere ez da ezer antolatuko. "Uribarriko jai batzordea arduratzen da sua pizteaz, eta aurten ez dute egiteko asmorik", jakinarazi du Txutxi Ariznabarreta alkateak.

Amurrion ez dute ohiko ekitaldia egingo. Bestelako ekimen bat burutuko dutela jakinarazi du udalak, baina ez dute xehetasun gehiago eman.

Udako solstizioa ospatzeko progamatuta zeuden ekintza gehienak bertan behera geratu dira eskualdean, salbuespenak salbuespen

Luiaondo eta Murgan egin ohi diren suak ere ez dira egingo aurten, Gentza Alamillo Aiarako alkateak jakinarazi duenez. Artziniega Museoan antolatzen den udako solstizioko jaia ere bertan behera geratu da. Araldon ez dute zehaztu oraindik zerbait egingo dute edo ez, baina ekintzarik egitekotan osomodu xumean izango dela aurreratu du Jabi Asurmendi alkateak.



Suarekin erlazionatutako ia ekintza guztiak bertan behera utzi dituzte. **Aiaraldea.eus**





kultura

“Kulturartekotasuna islatzea izan da muralen xedea”



BELEN HERRERO ALONSO (Laudio, 1971) eta **MONTSE GONZALEZ BARREDO** (Areta, 1963) LAUDIOKO HELDUENTZAKO IKASTETXEKO ZENBAIT HORMA MARGOTU DITUZTE MAIATZEAN ETA EKAINEAN. EGINDAKO LANARI BURUZ MINTZATU DIRA.



Testua eta argazkiak
Aitor Aspuru Saez

Nola sortu da mural hauek egiteko ideia?

Montse: Koldo Zabalak, Helduentzako Ikastetxeko zuzendariak, aipatu zigun muralak egin nahi zituela ikastetxeko barruko hormetan eta gaia kulturartekotasuna izango zela. Proposamena egin genuen eta aldaketa txiki batzuen ostean (koloreak, formak, bertsolariak txertatu...) onartu zuten. Gero zehaztu genuen zein horma margotuko genituen eta mural txikiago bat egin genuen, sarrerakoa, hain zuzen. Berez, ertz horretarako moldatu genuen, gizonezkoaren aurpegia bertan uzteko. Eta ez genituen gauza askoz gehiago aldatu.

Zertan oinarritu zineten diseinua sortzeko?

Montse: Alde batetik, islatu nahi genuen gu non gauden, gure ingurua. Bestalde, dena nahastu nahi genuen. Horregatik siluetak uztartu genituen eta mapan bilatu genuen zein zonaldetik datorren jende gehiago Laudiora. Etorkin gehienak Afrika, Hego Amerika eta Europako erdialdekoak dira.

Lurralde horietako ehunen kolorekoak dira mapan itsasoa estaltzen dutenak. Ehunen koloreak adierazgarriak dira zonalde bakoitzari dagokionez. Agian ez dira toki bakoitzeko ezagunenak, estetikoki moldatu behar izan ditugu ondo geratzeko.

Horrez gain, eguzkilorea eta horrelako elementu ikonikoak, edonork ezagutzen dituenak, jaso ditugu.

Zenbat denbora behar izan duzue murala egiteko?

Montse: Diseinurako astebete behar izan genuen. Aldaketak eta abar egin genituen eta photoshopen prestatu genuen erakutsi ahal izateko. Gero zirriborro horren gainean zenbait aldaketa egin genituen eta 3 aste egon gara margotzen.

Belen: Oso egun biziak izan dira, hori bai, 10 eta 11 ordu eman ditugu egun batzuetan.

Zergatik uste duzue proposatu zizuetela zuei?

Montse: Uste dugu erakusketa bat egin genuela eta interesa sortu ziola horrek zuzendariari, Laudioko Kultura Etxean irakasleak baikara. Suposatzen dugu horregatik izan zela. Ez dugu galdetu, egia esan.

Inauguraziorik egiteko aukera izango duzue?

Montse: Ez dugu uste, ez da une egokiena. Bestalde, ez dago ziur gure lana bukatu denik. Gainerako hormetan testuak eta olerkiak margotzea aukera bat da. Ez bakarrik euskaraz, baita bestelako hizkuntzetan ere. Ikasleek parte hartzea litzateke asmoa.

Dagoen margo grisaren gainean kolore bereko beste margoak erabiltzea da ideia, deigarriak ez direnak, baina hor egongo direnak. Ez daitezen izan horma margotuak, baizik eta elkarren artean lotura izan dezaten.

Mural gehiago egin dituzue?

Montse: Bai, Amurrioko Txakolin Egunean 3 egin genituen duela urte asko. Amurrioko Arte Eskolan ere egin ditut, baina ikasturte amaierako erakusketak egiteari utzi diogu. Bestelako elementuak txertatu ditugu eta ez digu denborarik ematen dena egiteko. Hori bai, duela bost urtera arte, urtero egiten genuen bat. Gero, nire kabuz beste hiru egin ditut.

Zein zailtasun izan dituzue mural hauek egiteko?

Belen: Garrantzitsuena margoa lortzea izan da. Pandemiaren ondorioz, ezin genuen nahi genuena eskatu.

Eskatzen genituen materialak ezin ziren eskuratu, jende asko hasi delako etxean margotzen. Ondorioz, dendetan zegoena agortu da.

Montse: Gainera, lantegietan ez da jarduerarik egon eta ez zegoen falta zena ordezkatzeko modurik. Amaitu dena hornitzeko aukerarik ez dago une hauetan. Dendetan esaten dizute 15 egun behar dituztela eskaria eskuratzeko eta, gainera, ez osorik. Berez, oraindik denda baten erantzunaren zain gaude eta duela 10 egun deitu genuen.

Hori guztia dela medio, erabaki genuen Laudion bertan erostea margoa eta ez da akrilikoa, etxeko hormetan erabiltzen dena baizik. Askoz hobea da guretzat akrilikoarekin egitea, hainbat tono lortzeko aukera baitago.

Kolore batzuk besteekin nahastu arren, ez da posible nahi duzuna lortzea. Jakina, egin nahi duzuna baldintzatzen du horrek.

Hormetan erabiltzen den margoa ez dago pentsatuta aldaketak egiteko, baina guk nahasketekin lan egiten dugu. Hormako margoak ez du ia pigmenturik, akrilikoarekin alderatuta.

Horregatik ez gara hain gustura ibili. Izugarri kostata lortzen genuen nahi genuena eta, gainera, hainbat aldiz margotu behar izan ditugu hormak. Pigmentu gutxiago duenez, behin edo birritan margotuta ondo geratuko litzateke, baina kasu hauetan lau edo bost aldiz margotzeko beharra izan dugu eta, horrez gain, emaitza ez da izan guk nahi genuena.

Hala ere, zer da gehien gogoko duzuena lan honetan?

Montse: Nik bereziki gogoko dut gizon nagusiaren irudia.

Belen: Nik oro har dena izan dut gogoko, baina albotik igarotzen naizen bakoitzean pentsatzen dut pena handia izan dela kolore egokiak lortzeko paradarik ez izatea. Bestelako margoekin emaitza ikusgarria izango litzateke. Orain ere polita dago, baina irabaziko luke.









Hainbat mural egin dituzte Belen Herrero Alonso eta Montse Gonzalez Barredok Laudioko Helduentzako Ikastetxean. **Aiaraldea.eus**

kirola

“Bizitzaz eta erresistentziaz betetako esperientzia da Apalatxeetako bidezidorra”

JON GALDOS LEZAMARRAK APALATXEETAKO BIDEZIDORRA KOLPE BAKARREAN ZEHARKATU DU. BIZITAKO ABENTURARI BURUZKO LIBURUA ARGITARATUKO DU UDAN.



Testua
Txabi Alvarado Bañares

Nola bururatu zitzaizun Apalatxeetako ibilbidea egitea?

10-11 urte neramatzan bidaia hau egiteko gogoekin. Argentinako Aconcagua mendietara joan nintzenean Ipar Amerikako lagun bat egin nuen, eta berak hitz egin zidan Apalatxeetako bidezidorrari buruz. Nik ez nuen ezagutzen, eta gogoak sortu zizkidan. Baina halako zerbait egiteko denbora asko behar duzu, eta orain arte ez dut izan. Tubos Reunidosen lan egiten nengoen, eta betetzen ari nintzen ordezkapen kontratua amaitzean hasi nintzen bidaia prestatzen.

Munduko xendazaletasun ibilbide garrantzitsuena da, ziurrenik. 3.523 kilometroko luzera eta 141.000 metroko desnibel pilatua du. Izugarria da. Estatu Batuetako ekialdeko kostaldea paraleloki jarraitzen du eta 14 estatu zeharkatzen ditu. Nik hegoaldetik iparraldera egin nuen bidea, eguraldi ona bilatzeko. Nire asmoa zen iparraldera joan ahala uda izatea, hotz gutxiago egin zezan. Maiatzaren 1ean hasi nintzen, Georgian. Iparraldeko Carolina eta Tennessee zeharkatu nituen jarraian. Oso estatu politak dira, natura askorekin. Jarraian igaro nintzen Virginia, Ekialdeko Virginia, Maryland, Pensilvania, New Jersey, New York, Connecticut, Connecticut, Massachusetts, Vermont, New Hampshire eta Mainetik.

Bidaia hori egiteko basoan sartu eta animalia bat bezala bizi behar duzu. Janaria bilatu behar duzu gasolindegietan eta antzeko tokietan, ibilbidetik aterata. Ahal duzun tokian egiten duzu lo: etxoletan, kanpin-dendetan... Eta etorri ahal zaizunari egin behar diozu aurre: ura, eguraldi txarra eta abar.

142 egun behar izan nituen bide osoa egiteko. Ibilbidean dauden etxoletan, kanpin-dendetan, kalean, jendearen etxean... egin dut lo. Egunak etxoletan amaitzen saiatzen nintzen, toki horietan babestuago zaudelako. Egun oso haizetsuetan kanpin-denda batean lo egitean beldur handia pasatzen duzu. Georgian egon nintzenean, Cherokee mendietan, oso egun latzak igaro nituen, eguraldiagatik eta hotzagatik.

Orain,bidaia amaituta, bertan bizitakoei buruzko liburua idazteari ekin diozu. Zergatik?

Estatu Batuetako jendartearen bestelako irudi bat islatu nahi dut liburuan, guk hemen dugun iruditik asko aldentzen dena. Ikusi dut nola babestu eta zaintzen dituzten ibilbide hori egin nahi duten pertsonak: janaria eman didate, toki batetik bestera eraman, etxean ostatua eman... Oso une latzetatik atera naute. Heroiak izango balira bezala tratatzen dituzte ibilbidea kolpe bakarrean amaitzea lortzen duten pertsonak.

Urtero 6 milioi pertsona inguru gerturatzen dira Apalatxeetako bidezidorrera. 6.000 kirolari baino gehiago saiatzen dira ibilbidea egiten, baina %10-15ek baino ez dute lortzen. Gainontzekoek bertan behera uzten dute, lesioengatik edota neke psikologikoa medio. 700-800 pertsona inguruk lortzen dute urtero helmugara iristea.

Oso latza da. Mainen, adibidez, 29 kilo inguruko motxila bat eraman behar izan nuen, 5-6 egunerako janariarekin, aurretik 170 kilometro baso nituelako. Birrinduta amaitu nuen. Dena da mendia, igo eta jaisten zabiltza uneoro. Ez da xendazaletasun bide hutsa: bizitza- eta erresistentzia-esperientzia da.

Apalatxeetako bidezidorraren inguruan bizi diren pertsonek izugarri ondo zaintzen dute natura. 31 mendi talderen artean mantentzen dituzte bidearen 3.523

kilometroak, boluntarioen bidez. Ez da zaborrik inon ikusten. Gainera, bide hau oinez egin daiteke soilik, ez dago baimenduta bizikletaz egitea. Turistak ere ezin dira etxoletan egon, toki horiek xendazaleentzat erreserbatuak daudelako. Europan oso ezezaguna da bide hori, Apalatxeen luzapen bat dagoen arren. Duela 40 milioi urte inguru Apalatxeak zatitu egin ziren. Horregatik, Extremaduran topatu ditzakezun arteen tankerakoak topatu daitezke Maine edo New Jerseyn.

Zer izan da bidaiatik zailena iruditu zitzaizuna?

Apalatxeen bidezidorrean ez dago erraza den ezer. Oso egoera ezberdinak topatzen dituzu paisaia, lurraren tamaina edota klimaren aldetik. Esan bezala, Georgian hasi nuen bidea, eta Mainen amaitu. Bertan dago, hain zuzen, bidearen zatitik gogorrena. Toki batzuetan ordubete baliatu behar duzu kilometro bakarra egiteko.

Nik ez nuen zailtasun hori ondo aurreikusi. Bertara iritsi nintzenerako nire muskulu-masaren %15 galdua nuen dagoeneko, eta ez nintzen egunean 15 kilometro baino gehiago egiteko gai. Hasieran asko egin nuen, baina amaieran ezin nuen motxila eutsi ere egin. Behin ez nintzen gai izan motxila furgoneta baten atzeko aldera botatzeko ere, oso ahul bainegoen. Gidariak lagundu behar izan ninduen.

Pensilvanian bizitakoa ere gogoan dut. Jende guztiak esaten zidan erraza izango zela, dena laua zelako. Egia da Cherokee mendietatik jaisten zarenean horrek lautada bat dirudiela. Baina oso zaila da, lurzorua harrizkoa delako. Toki bakoitzak bere zailtasuna du.

Virginian ere ez zegoen aldapa askorik, baina uda zenez eltxoei egin behar izan nien aurre. Baina bidea egiten duenak badaki zailtasun horiei aurre egin beharko diela.Janaria ere arazo bat izan zen. Oso gaizki jaten dute bertan, eta denbora behar izan nuen ohitu eta zer erosi jakiteko. Pasta zen nire janari nagusia. Ezti asko ere jan nuen, antiinflamatorioa delako eta energia asko ematen duelako. Supermerkatuetara iristean, saiatzen nintzen nirekin eraman ezin nuen dena unean bertan jaten, jogurtak kasu. Ibilbidea ondo markatua dago,-baina bi norantzatan. Gauzak hala, bidetik ateratzen bazara, gero kontuz ibili behar duzu,kontrako norantza ez hartzeko.

Bakarrik egin zenuen bidea, zergatik?

Londresko lagun batekin joatea zen nire hasierako asmoa. Andy du izena eta antzezlea da. Elkarrekin joatekoak ginen baina azken unean laneko kontu bat sortu zitzaion eta ezin izan zen batu. Nik banuen dena bideratua. Madrileko enbaxadara jo behar izan nuen bisa ateratzera, urte batzuk lehenago Iranen egona nintzelako eta bi herrialdeen arteko harremana oso txarra delako. Gauzak hala, bakarrik joatea erabaki nuen azkenean.

Bidaia asko egin ditut bakarrik, Iranekoa kasu. Bakarrik bidaiatzen duzu, baina ez zaude bakarrik. Apur bat jatorra bazara segituan topatzen dituzu bidaideak. Ni askotan joan naiz bakarrik,baina ez naiz inoiz bakarrik egon.

Bidaia hau ez da egiten duzun lehena. Non gehiago egon zara?

Azken urteetan asko bidaiatu dut. Asko gogoko dut xendazaletasuna. Mendiari lotutako jarduera asko egiten ditut. Aconcaguan edota Kilimanjaron egona naiz. Gauza asko egin ditut, lanak utzi didan heinean.

Santiago Bidearen 3.500 kilometro ere egin ditut. Askoz gehiago egitea gustatuko litzaidake.

Estatu Batuetako erronka beteta, baduzu bestelako bidaiarik buruan?

Estatu Batuetatik etorri nintzenean liburua argitaratzea bururatu zitzaidan. Abentura bat izan da idazketa-prozesua. Urte eta erdi behar izan dut lana amaitzeko. Gauza asko irakurri behar izan ditut ibilbideari buruz, Estatu Batuetan nengoenean ibiltzera mugatzen bainintzen. Buelta pare bat ematen nago oraindik, argitaletxeak orri kopurua jaistea eskatu didalako. Nire esperientzia kontatzen dut liburuan, ibilbidearen gaineko informazioarekin batera. Estatu Batuak zonalde horretan sortu ziren, eta herrialde horren sorreran parte hartu zuten Euskal Herriko zein Andaluziako pertsonaien iruzkinak ere sartu ditut. Hori guztia nahastu dut liburuan. Hiru hilabete eman nituen argitaletxeak bilatzen. Sei argitaletxek erakutsi zuten interesa eta bat hautatu dut. Ekainaren amaieran edo uztailaren hasieran argitaratuko dutela uste dut. Liburua merkatu anglosaxoian kokatu nahiko nuke baita ere, ingelesera itzulita.

Dena den, oraindik ez naiz muskulu-masaren galeratik errekuperatu. Nik 81 kilo pisatzen nituen eta itzuli nintzenean 67 pisatzen nituen. Hezur-zaku bat nintzen. Medikura eta gimnasiora joan behar nintzen, eta apurka apurka osatzen joan naiz, baina ez dut pisua berreskuratu. Dena den, badut Estatu Batuetan beste bide luzeren bat egiteko gogoa.

Informazio gehiago www.jongaldos.com webgunean eta jongaldosappalachiantrail2017.blogspot.com blogean.

“Estatu Batuetako jendartearen bestelako irudia islatu nahi dut liburuan”







Lau hilabete baino gehiago baliatu zituen Aiaraldeko bizilagunak bide osoa egiteko. **Jon Galdos**

kirola

“Etxetik kanpo jokatzea da pertsona eta jokalari bezala hazteko bide onena”

HODEI OLEAGA (Laudio, 1996)
ATHLETIC CLUBEKO ATEZAINA DA. AURTENGO DENBORALDIAN MELILLAN EGON DA JOKATZEN.



Hodei Oleaga entrenamendu batean. **Juanfer Oleaga**

Testua
Julen Solaun Martinez

Aurten Melillan egon zara jokatzen eta denboraldiko minutu guztiak jokatu dituzu. Nolakoa izan da Athleticetik kanpo urtebetez egotearen esperientzia?

Partida guztiak jokatzeko aukera izan dut aurten, eta esperientzia ona izan dela uste dut. Azkenean, etxetik irtetea zaila da hasieran, baina ondo etorri zaidala esango nuke. Partidak jokatzea, eta etxetik kanpo, pertsona eta jokalari bezala hazteko bide onena dira.

Denboraldi arraroa izan da, COVID-19a dela eta, ezin izan duzuelako liga amaitu.

Jokalarietan inori ez zaigu gustatzen denboraldia amaitu gabe bertan behera geratzea, baina gertatutakoa oso larria izan da.

Nik ondo eraman dudala uste dut. Aita han egon da nirekin konfinamenduak iraun dituen bi hilabeteetan zehar, elkarrekin egon gara eta beste era batean eraman ahal izan dugu. Ama eta anaia Laudion geratu ziren, baina ondo moldatu gara.

Nahiz eta berrogeialdia Melillan pasa, hona bueltatu zara dagoeneko eta Athleticen jarraituko duzu denboraldia. Nolakoa izan da Athleticen lehen taldera bueltatzea?

Arraroa izan da, bai. Bakarka hasi behar izan ginen entrenatzen. Ondoren, talde txikietan elkartu gara; eta, astelehenaz geroztik, talde osoa elkartu ahal izango gara.

Egia da hasieran arraroa izan zela, arraro sentitzen zara etxean bi hilabetez egon zarelako. Oporrak ditugunean baino denbora gehiago da, hilabete bat opor dugulako.

Etxean egindakoak lagundu du. Dena den, ez da erabat berdina, atezainok lurrera botatzen garelako; ez da zelai jokalarien-modukoa, haiek korrika gehiago egin behar baitute. Gure entrenamendua oso intentsitate handikoa da, baina denboran laburragoa. Jokalari bat uneoro egon behar da lasterka, eta haien erresistentzia mota guk dugunarekiko desberdina da.

Denboraldi amaierara arte jarraituko duzu Athleticen, edo zer asmo duzue uztailaren 1a eta gero?

Ez dakit. Melillan konfinatuta nengoela Rafa Alkortak deitu zidan ea lehen taldearekin entrenatu nahi nuen galdetzeko, Gaizka Garitanorekin hitz egingo zuela. Nik Athleticekin entrenatu nahi nuen, eta, noski, baietz esan nuen. Gure liga amaituta zegoen jada eta ez nuen gelditu nahi.

Futbolean jokatzea eta entrenatzea gustatzen zait, eta are gehiago lehenengo taldearekin entrenatzeko deitzen banaute.

Aiaraldea.eus atarian dago elkarrizketa osoa.

ESKALADA

Aitor Moleroren omenezko eskalada bide berria zabaldu dute Egino mendian


Testua
Txabi Alvarado Bañares

"Mole” izena jarri diote Egino mendiko eskalada-eremuan zabaldutako bide berriari, Aitor Moleroren omenez.

Alfredo Hernandez eta Joxe Blanco laudioarrek zabaldu zuten bidea maiatzaren 31n eta ekainaren 10ean.

Bideak 165 metroko luzera du, V/A1ko zailtasuna, eta Doña Eusebia bezala ezagutzen den paretatik gora doa. “Pasarte klabeak eta bilguneak babesteko 3 iltze, 2 txapa eta fisurero 1 daude”, azaldu dute bi eskalatzaileek, eta 70 metroko sokak erabiltzea gomendatu diete bidea probatu nahi dutenei.

Aitor Molero Toro gazte laudioarra otsailaren hasieran zendu zen lan istripu baten ondorioz, Galdakaoko GHI Hornos Industriales enpresan. Eskalatzailea zen Molero, eta horregatik jarri diote bide berriari bere izena.



“DoñaEusebia” paretatik gora doa bidea

Aiaraldeko gertaerak mugikorrean jaso nahi?

HARPIDETU GURE KANALETARA!

WhatsApp
Jaso Whatsappean eguneko edukiak, 688 848 152 ze[illegible] mezua bidalita!

TELEGRAM
Batu Telegramera t.me/aiaraldeaeus [illegible]a bidez!

hedabidea
AIARALDEA GAUR



INFO+ www.aiaraldea.eus

herriko plaza



Unax

Zorionak Unax! Gure etxeko kirolari nagusiari, 8 urte egitean basarkada eta muxu pila!

Ibai, ama, aita, amatxi eta aitite



Arhane

Zorionak prexioxa: Egun polit polita izan familiarekin. Jatorra eta maitagarria zarelako musu erraldoiak bidaltzen dizkizuegu.

Periko eta Paz



Manex

Zorionak Manex! Mile mosu eta besarkada gure etxeko morroskoantzat! 7 urte!!! Aurten agin barik be pastel guztie jan!!

Etxekoak

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Uztailaren 1ean argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

ERRAZA

	3	1	7	4	8			
4		9		5		3		
	5	6	3	9	2	7	4	
5	6		9		7			8
	9			2		1	5	6
3			8	6	5	2		7
	8			3		5	2	9
			5	8	9		7	
		5			6	8		3

ZAILA

	3	1	7	4	8			
4		9		5		3		
	5	6	3	9	2	7	4	
5	6		9		7			8
	9			2		1	5	6
3			8	6	5	2		7
	8			3		5	2	9
			5	8	9		7	
		5			6	8		3

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Zozketa

Laudioko Iluntze kafetegian bi lagunentzeko gosaria




Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus en **Zozketa data:** ekainaren 26an, 12:00etan.

arrate
gestoria • aholkularitza • aseguruak
Iturralde kalea 2, AMURRIO
945 89 02 06
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com
Utzi zure errenta 19 profesionalen eskuetan
Errenta-aitorpenaren plangintza gurekin egin ezazu.
20 urte baino gehiagoko esperientzia


KOKO RIKO

IRAKURKERA GUNEA



ARRAROA

Idazlea: Ainara Azpiazu eta Paula Estévez
Editoriala: Pamiela
Guztiei iruditzen zaigu ondokoen bizitza arraroa, baina zer da arraroa? Nor da arraroa? Pentsatzera gonbidatzen duen ipuina da, hainbeste dira arraroak diren gauzak...azkenean geroz eta gauza gutxiagok diruditela arraro.



OSTEGUNAK

Idazlea: Jon Arretxe
Adina: 14 urtetik gora
Editoriala: Elkar
Bost ipuin labur kontatzen ditu idazleak liburu honetan. Ipuin laburrak eta azkar irakurtzekoak, gazteei interesatzen zaizkien gai ezberdinak jorratzen dituelarik: harremanak, parranda, ikasketak...

JOLAS GUNEA

Alberto Aceroko haur parkea

LEKUA: Laudio Alberto Acero Plaza

AZALPENA: Jolas parke hau agian ezaguna da askorentzako, baina oso interesgarria da. Parke honetan jolasa ez dago bideratua, haurrak ez du beti leku berdinetik igo edo jaitsi behar. Egitura berdinarekin jolasteko hamaika jolas ezberdin daude. Jolasa bideratuta ez egoteak, liskar gutxiago edukitzea ekartzen du eta haur gehiago hartu ahal izatea. Gainera, enborrei esker, hainbat adinetako haurrek jolastu dezakete, erronkak planteatuz. Oso parke interesgarria da, haurraren garapen sozial, fisiko eta kognitiboari erreparatuta.



ALTXORREN SASKIA




ZER DA?: Material natural eta sinpleez osatutako saskia da. Bertan topatu dezakegu, egurrezko koilara bat, metalezko katilu txiki bat, egurrezko bola bat, egurrezko katilu bat, kortxoak, pinaburuak, adarrak, harriak, oskolak, pintzak, brotxak...

Materialak egiturarik gabea izan behar du. Hau da, jolas anitzetarako balio duten elementuak dira. Jolasa bideratzen ez duten elementuak. Haurrak jolasteko autonomia eta irudimena garatzea izango da elementu honen helburua.

ZERTARAKO? Haurrak hainbat jolas egin ditzake elementuekin. Jolas sinbolikoa (zerbait edo norbait izatera jolastu), bete eta hustu jolasa, zenbatzeko jolasa, eraikitzeko jolasa... Askatasunez eta beraien irudimena landuz jolastuko dute elementuekin. Elementu simpleak diruditen arren, beraiekin egiten duten jolasa sakona eta interesgarria da. Horretarako helduak, haurra behatu besterik ez du egin behar, haurraren jolasean ez sartzen saiatu, eta haurra izan dadila iniziatiba hartzen duena.

Jolas honekin haurrak, autonomia, kontzentrazioa eta sormena landuko ditu.



Zortzikoa

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Zortzi dira guztira.







Itzala

Zein da trogloditaren itzal zuzena?

SOLUZIOAK





Kontra

Aiaraldetik mundura



Geoff Livingston

Pedro Mendia

JAIOTERRIA
LAUDIO

BIZILEKUA
NEW HAVEN (ESTATU BATUAK)

BIDAIAREN XEDEA
17 URTEREKIN JOAN ZEN ESTATU BATUETARA BIZITZERA, FAMILIAREKIN

“Gure ikasleak lehen lerroan daude Floyden erailketa salatzeko protestetan”

Nola bizi izan duzue koronabirusaren krisia Estatu Batuetan?

Hiru hilabete baino gehiago daramatzagu koronabirusarekin bizitzen. Bigarren fasera sartuko gara aste honetan. New Havenek itxita jarraitzen du. Funtsezko langileek soilik egiten dute lan. Hiru hilabete daramatzagu etxetik lan egiten, baina azken lau asteetan egunero joan naiz lanera,bulegoan ni bakarrik nagoen arren. Maisuak eta ikasleek etxetik egiten dute lan, eta aurten ez dira eskolara itzuliko. Ikastetxeek bi aste daramatzate irekita, baina ikasleak gauzak hartzera soilik gerturatzen dira, eta ordenagailuak itzultzeko. Astebete barru bukatuko dira klaseak, ekainaren 21a izango da azken eguna. Oso zaila izan da maisu zein ikasleentzako. Ingelesa ez dakiten umeekin lan egiten dut, eta oso zaila da euren beharrak asetzea.

Pandemiaren erdian egin dute eztanda George Floyden erailketa salatzeko protestek. Zer nolako oihartzuna izan dute bertan?

Gure ikasleak lehen lerroan egon dira protestetan, beltzen eskubideen alde borrokan. Hiri honetan beltzak eta hispanoak dira gehiengoa. Manifestari gehienak gazteak dira, eta irakasleok badugu erantzukizun bat, hezitzaile gisa. Gure ardura da eurei irakastea gure ikasle eta familia guztien alde borrokatu behar dugula. Erabat bidegabea da orain gertatu dena eta historikoki Estatu Batuetan jazo dena.

Adingabe atzerritarrekin egiten duzu lan. Zer nolako eragina izan dute Trumpen politikek zure jardunean?

New Haven “hiri-santutegia” da. Beste hiri batean paperik gabeko atzerritarrek deportatuak izateko arriskua dute. Baina hemen poliziak ezin du halakorik egin. Berdin du paperik izan edo ez. Atzerritarrek poliziarengana jo dezakete laguntza eske, deportatuak izateko beldurrik gabe. Krimen antolatuaren aurka jarduteko balio du horrek, jendeak poliziarengana gehiago jotzea ahalbidetzen duelako.

Trumpek esan zuen horrelako hiriei dirua kenduko ziela, legez kanpo jokatzen ari direla argudiatuta. Hemen udalek dute botere osoa. Poliziak udalarentzat egiten du lan, ez gobernuarentzat.

George Floydi gertatu zaiona ezin da berriro gertatu. Ezin gara berriro status quora itzuli, egoerak gainezka egin du. Hau ezin da lau asteko mobilizazioetan geratu.


Horregatik, uste dut kalera atera den jendea ez dela etxera itzuliko gauzak aldatu arte. Mota guztietako jendea mobilizatzen ari da, baina noiz arte? Hori da beltzak galdetzen ari direna, noiz arte babestuko dituzten herritar zuriek.

Gauzak oso ezegonkor daude oraindik, baina uste dut hainbat pauso ematen ari direla, gauzak onera aldatu daitezen. New Haveneko ikasleek, adibidez, gastu polizialak berrikustea eskatu dute. Institutu handi guztietan daude poliziak, iraganean egondako tiroketak direla eta.

Gauzak hala, polizia horien presentziaren beharra zalantzan jarri dute ikasleek, eta horretara bideratutako dirua gizarte hezitzaileei bideratzea eskatu dute, ikasleen beharrak hobeto asetzeko.

Connecticut eta New Havenen egin beharreko guztia egingo da agenda soziala aurrera atera dadin, Trumpen administrazioak dioena dioela.

CONNECTICUT



DESKRIBAPENA
Estatu Batuetako 50 estatuetako bat da Connecticut. Zortzi konderritan banatuta dago eta Hartford da hiriburua. New Haven, aldiz, hirugarren hiririk populatuena da, 130.282 biztanlerekin, eta izen bereko konderrian kokatuta dago.

AZALERA
14.356 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
3,5 milioi biztanle.

HIZKUNTZA
Ez dago hizkuntza ofizialik ezarrita, ohikoena ingelesa den arren.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea:publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behea. Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Xabier Ugalde Gulias, Jabi Asurmendi Sainz, Unai Llano Anda, Eider Solatxi, Alberto Martinez Gutierrez-Barquin, Ali Orue Del Valle, Garrastatxu Landaluze Okeranza, Genma Corbella Eguiluz, Unai Vicente Basterra, Estibaliz Bideguren Otaola, Aitor Fernandez de Pinedo, Endika Arribas Gulias, Eunate Molinuevo Olabarria eta Koldo Rodriguez

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko · Urduña Orduña · Artziniegako Udala · Arrankudiaga Zollo Udala · Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala · Arakaldo · Okondoko Udala · Laudio Udala Ayuntamiento de Llodio · Amurrio

G! Graf!k
Tellería 2, Laudio (Araba)
94 672 65 43// info@grafiksarea.com

ausolan

Basalarrina euskal Topagunea

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Eusko Jaurlaritza
Gobierno Vasco
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila